

3 Elkarriketa: "Gorramendi 10" Elizondoko musika taldea

Uda honetan dantzaldi franko animatzeko asmoa dute 14-16 urteko gazteak hauek. Orain dela hiru urte osatu zuten taldea, etaguzira, 3 orduko erreperorioa gainditu dute.

4 Erreportaia: Eskualdeko zabor gehienak Iruñerrira bidaliko dira laster

Lehenago, ordea, zaborrak bildu eta trinkotzeko Biltegia egin nahi da Legasan.

6 Iritzia: Merkatuan ditugu dagoeneko produktu transgenikoak

10 Hauteskunde sindikalak: Ikastetxe publikoetako hauteskunde sindikaletan LAB nagusi

Alkategai gehienak abertzaleak

Ekainaren 13an aukeratuko dira udal eta kontzejuetako alkate-zinegotziak, eta baita Nafarroako eta Europako Parlamenturako ordezkariak ere. Horrela, bada, herri gehienetan hiru boto desberdin emanen dira, eta kontzejuetan bizi direnek, lau emanen dituzte: Kontzejukoa, Herriko Etxekoa, Nafarroako Parlamentukoa eta Europakoa.

Dena dela, jakinminik haundiena herriko hautagaien zerrendek sortu dute. Hainbat herritan azken momentu arte ez da argitu zenbat lista presentatuko diren, eta toki bat baino gehiagotan, ustegabekoak ere izan dira.

Bertzalde, zerrenda bakarra dutela-eta, dagoeneko badakite zein izanen

duten alkate Eratsunen, Ezkurran, Goizuetan, Beintza-Labaien, Urrotzen eta Zubietan. Oitzen, azkenik, ezin izanen dute ekainaren 13an alkaterik aukeratu, ez baita inor presentatu lan hori egiteko. Oiztarrek bertze aukera bat izanen dute beranduago.

11-24

Independienteak

Areso, Beintza-Labaien, Bertizarana (2), Donamaria (2), Elgorriaga, Etxalar, Eratsun, Ezkurra, Igantzi, Saldias, Urdazubi (2), Urrotz eta Zugarramurdi.

EH

Arantza, Areso, Baztan, Bera, Doneztebe, Elgorriaga, Goizueta, Ituren, Leitza, Lesaka, Saldias, Sunbilla, Zubieta eta Zugarramurdi.

EA

Baztan, Bera, Doneztebe, Etxalar, Ituren,

EAJ-EA


Arantza, Igantzi eta Lesaka.


UPN

Baztan eta Leitza.

EAJ

Bera.





Irungo la salle

Elizatzoko Hiribidea, 14 - 20303 IRUN - Tfnoa: 943 62 84 11 - Faxe: 943 62 84 32
E-mail: ilsallei@planalfa.es

GOI MAILAKO LANBIDE HEZIKETAKO IKASTETXE INTEGRALA

✓ DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA ✓ HEZKUNTZ ZIKLOAK

✓ BATXILERGOAK

Natur eta Osasun Zientzien Batxilerra
Giza eta Gizarte Zientzien Batxilerra
Batxiler Teknologikoa

□ Erdi mailako Lanbide Heziketa

Ekipo eta Instalazio Elektroteknikoetan Teknikaria
Mekanizazioan Teknikaria

□ Goi Mailako Lanbide Heziketa

Mekanizatze Bidezko Ekoizpena Goi Teknikaria
Administrazio eta Finantzetako Goi Teknikaria
Erregulazio eta Kontrol Automatikoetan Goi Teknikaria

**Derrigorrezkoaren ondoko Bigarren Hezkuntzako
mailetan 1999/2000 ikasturterako**

AURRE IZEN-EMATEAK.

Epea: EKAINAREN 1 ETIK 9 RA



KALITATEZKO HEZKUNTZA

Diseinu eta publizitatean, zerbitzu integrala

KULTURKARI

publizitatea • zerbitzuak

Herriko Etxeko Plaza, 1 • E-31780 BERA (Nafarroa)

Tfnoa.: (+ 34) 948 63 11 88 / Fax: (+ 34) 948 63 12 91

Irudi korporatiboa **Publizitatea prentsan**

logotipoak **irratian**

foiletoak **telebistan**

aldizkariak **Publizitate**

katalogoak **kanpainen**

diseinua **antolaketa**

DATUAK.....

❖ 14 eta 16 urte bitarteko gazte hauek hamaika plaza egin dituzte dagoeneko, eta aurten goian udan kontzertu franko egiteko asmoa dute gainera.

❖ Musika aditzeko orduan bakoitzak arras gusto desberdina dituzte, baina plazan jo behar denean jendearen gustoko piezak aukeratzen dituzte.

❖ Guzira 3 orduko errepertorioa dute, rantxerak, Gozategiren kantuek eta dantza egiteko doinuak tartekatuz.

❖ Musika eskolako ikasleak dira denak, eta horretaz gain Iñigo eta Noek gitarra eta saxofoi klaseak hartzen dituzte Iruñean.

👉 **"Gorramendi 10"** Elizondoko berbera taldea

"Orain arte jaunartzetan eta herrietako bestetan jo dugu"

ZENBAT DENBORA DARAMAZUE TALDEAREKIN?

Hiru urte. Lander, Karmele eta ni Nafarroako Kantu Txapelketan atera ginen, eta Nafarroako irabazle suertatu ginen. Orduan musikan segitzeko gogoia sartu zitzaigun eta Naxara eta Noe lagunak hartuta boskotea osatu genuen.

AURTENGO UDAN PLAZATIK PLAZARA IBILTZEKO ASMOA DUZUE?

Orain arte jaunartzetan eta inguruko herrietako bestetan jo dugu, baina udan leku ezberdinetan joko dugu: Burladan, Iruñean eta Baztango herri guztietan. Orain arte Baztan inguruan aunitz jo dugu, eta gero hemendik pixkat urrunxago Lasarten edo Lakuntzan ere bai. Hasieran kanpoan jotzeko beldurra ematen zigen, baina behin hasita igual gustorago aritzen gara. Jende guziaz egutegia baldin bada lotsa gehiago ematen du.

BAKOITZAK ZUEN ETXETAN ADITZEKO, ZE MUSIKA ESTILO MAITE DUZUE?

Denetarik aditzen dugu. Nik -Karmele- euskal musika atsegin dut gehienbat. Azken aldi honetan Gozategiren azkenekoa entzun dut, «Kalanbreak». Neri pertsonalki -Noe- 'Blues Brothers' ak gustatzen zaizkit. Nik, berriz, -



Goitik hasita, ezker eskuin: Karmele, Lander, Iñigo, Naxara eta Noe.

Lander- heavya gustoko dut, batez ere 'Soul Fly', Max Calaveraren taldea. Neri -Iñigo- Johnny Lang gustatzen zait, gitarrista gaztea eta bluesa arras ongi jotzen duena. Neri -Naxara- Alanis Morissette gustatzen zait artista eta pertsona bezala.

HORREN GUSTO EZBERDINAK IZANIK EZ DUZUE ARAZORIK GERO TALDEAN JOTZERAKO-

AN?

Taldek kanpo denek gusto desberdinak ditugu, baina talde barruan garbi dugu plazetan ze musika jo behar dugun. Jendea dantza egiteko musika gustatzen zaio.

BERBENETAKO ABESTIEZ GAIN ZUEN PIEZAK ERE KONPOSATZEN DITUZUE?

Bai. Guk abestilasaiak egiten ditugu gehienbat. Badira batzuk martxa badutenak, baina gehienbat poliki dantzatzeko dira. Estilo guztietako abestiak nahasten

ditugu. Plazetan, berriz, denetarik jotzen dugu: rantxerak, Gozategiren kantuek...

NONDIK ATERA ZENUTEN TALDEAREN IZENA? BADU ZERIKUSIRIK "OTSONDO 602" TALDEAREKIN?

Bai. Behin kotxez gaiten ginen Otsondotik, eta ikusi genuen hor kaxkoan dagoen kartela: "Otsondo 602". Aitzinerat segitu eta "Gorramendi 10" kartela agertzen zen. Honek pixkaterreferentzia eginez hartu ginuen izen hori, euren oroimenez-edo.

► **"«Otsondo 602» taldeari erreferentzia egiten dio gure taldearen izenak, euren oroimenez jarri genion."**

ESKUALDEKO ZABORRAK

Gehienak Iruñerrira bidaliko dira laster



Hau da Beintza-Labaiengo labeak gaur egun duen itxura. Uda baino lehen, ordea, behin betikoz itxi eginen da.

Hemendik denbora guttira Senpereko zabortegia baizik ez da geldituko inguru honetan. Orain arte bezala, Sara, Senpere, Urdazubi eta Zugarramurdiko hondakinak bilduko dira bertan. Gainerako herrietako zaborrak, berriz, hemendik kanpora eramaten dira, Iruñerriko zabortegira, hain zuzen ere.

Duela 10 urte Leitzakoak egin zuen bezala, Baztan, Malerreka eta Bortzirietako Mankomunidadeek akordioa sinatu dute Iruñerriko Mankomunidadearekin, eta ahal bezain laster hasiko dira hondakinak Gongorarat eramaten. Horretarako, ordea, lehendabizi beira, papera eta zabor organikoa bereizi beharko da hemen.

TESTU ETA ARGAZKIAK: **ASIER GOGORTZA**

Bagordi eta Beintza-Labaiengo labeak uda baino lehenago itxiko dituzte behinbetikoz. Aspaldiko zurrumurrua berriki baieztatu digu Maleirekako Mankomunidadeko idazkariak. Nafarroako

Gobernuko Ingurugiro Departamentuak behartu ditu erabaki hori hartzera, bi zabortegien egoera makurra ikusita. Izan ere, badira urte batzuk labe errausgailuek ez dutela zaborra behar bezala erretzen. Bagordikoa 1988an hasi zen lanean, eta hasieran Baztango zabor guzia hartzeko gai zen, 24 ordutan 8.000 kilo erretzen baitzituen. 90 hamarkadaren hasieran, ordea, lehendabiziko arazoak hasi ziren instalazioen egoera txarragatik, baita sobera zabor eramaten zelako ere. Horren aitzinean, Baztango herrie-

tako zaborrak Azpilkuetako zabortegira eramaten hasi ziren eta gehienak han pilatzen dira oraindik ere. Tarteka su ematen diete, baina nahiko modu txarrean halere. Zenbait ikerketa egin eta gero nabarmen gelditu da inguruari kalte handia egiten diola Baztango zabortegiak. Beraz, lehenbailehen itxitzea agindu du Ingurugiro Departamentuak.

Beintza-Labaiengoarekin ere gauza berdintsua gertatu da. Urte batzuetatik honat la-beakez du zabor poltsabakarbatererretzen. Ezkerreko argazkian ikusten den bezala, labe ondoan ematen diote su zaborrari, eta hori, bistan denez, mendiarendako ez da batere mesedegarri. Gainera, urrunetik ikusten da zabortegitik ateratzen den ke arras-toa.

Goizueta eta Berakoa ere lehenbailehen itxitzekoak

Eskualdeko bertze bi zabortegiri ere –Goizueta eta Berakoa– bizi laburra gelditzen zaie. Goizuetakoak gehienez ere 2 edo 3 urte gehiago iraunen ote duen aipatu digu Angel Salaberri zabor biltzaileak. Gauregun Arano eta Goizuetatik 140 to-na zabor eramaten dira urte-ro. Gero lurrez estaltzen dute dena.

Bortzirietako zaborrak, berriz, Intzolako erre-kara eramaten dira 1990. urtetik honat. Han ere tarteka lurra botatzen diote gainetik. Zabortegi honeri 10 bat urteko bizitza eman diote gehienez, baina arazo fran-ko eman ditu dagoeneko.

Senpere aldean dago eskualdeko bosgarren zabortegia. Sara, Senpere eta inguruko herrieta-ko zaborretaz gain Urdazubi eta Zugarramurdiko Udalek ere hitzezko akordioa dute za-bortegi honekin, eta harat era-maten dituzte hondakin solido-ak. Hango datuei kasu eginez, zabortegi hori da inguruko en artean gehien birziklatzen due-na, plastikoak, kartoia, tetra-brikak eta guzi bereizten baiti-ra. Dena den, Zugarramurdi eta Urdazubin zabor guziaz on-tzi berdinean sartzen dute, eta ez dakigu gero nola moldatu-ko diren zabor hori bereizteko. Kontuak kontu, Zaluagarabil-

Malerrekako herrietan papera eta beira birziklatzeko zaborrontziak jarriko dituzte

Aste honetan bertan ailegatuko dira Malerrekara zaborrontzi berriak. Orain arte ontzi berdine-tan sartzen bazen zaborra, hemendik aitzinera beira eta papera bereizteko modua izanen da behinik-behin. Horrela, jatekoa edo edatekoa gordetzeko erabiltzen diren kristalezko ontziak kontenedore berdeetara bota beharko dira hustu ondotik.

Hori bai, gogoratu kristala bakarrik bota behar dela, tapoia edo tapa bertze zabo-rrarekin batera sartu behar baita. Pa-pera eta kartoia, berriz, bertzeen on-doan egonen diren zaborrontzi azuletan. Malerrekako Manko-munidadea etxeetara bidaltzen ari den triptiko batzutan zabo-rrari buruz informazioa ematen da, eta herritarrei kolaborazioa eskatzen zaie afera honetan. Izan ere, hondakinak bereizteak aski esfortzu ttikia eskatzen du etxe barranean: beira eta papera botatzeko sukaldean bertze ontzi pare bat jartzea, bertzerik ez.



Zenbat hondakin produzitzen dugu?					
ESKUALDEA	ZENBAT HERRI	BIZTANLEAK	TONELADAK URTEKO	BIZTANLEKO EGUNERO	BIRZIKLATZEN DA...
BAZTAN	15	7.968	3.645	1,25 kilo	Beira
BORTZIRIAK	5	8.358	5.075*	1,65 kilo	Beira, papera, pilak
MALERREKA	13	5.253	2.383	1,24 kilo	Beira
URDAZUBI - ZUGARRAMURDI	2	747	1.218*	4,5* kilo	Beira, papera, tetra-brik, burdina, plastikoak
SENPERE, SARA...	2	6.361	*	*	
LEITZA, ARESO, LARRAUN, LEKUNBERRI	4	5.362	1.554,7	0,8 kilo	Beira, papera
GOIZUETA - ARANO	2	1.071	140	0,4 kilo	Beira, papera

* Zaluagako zabortegira Zugarramurdi, Urdazubi, Sara eta Senpereko hondakinekin batera Lapurdiko bertze herri batzuetako zaborrak eramaten dira. 96. urtean 20.000 tonelada bildu zuten herri guzi hoietan. Kopuru horren %5a birziklatu zuten, baina 2.000. urtean %20a birziklatu nahi dute.
* Zugarramurdi eta Urdazubiko datuen barnean Dantxarrieko bentetan eta lantegietan bildutako zabor kopuruak sartuak daude, baita Bortzirietakoetan ere.

dutako zaborren %5a bertze-rik ez da birziklatu azken ur-teotan, baina heldu den urte-rako %20ra ailegatu nahi omen dute.

Nafarroa osoan hiru zabortegi bakarrik

Europar Batasunaren arauak bete nahi baditu, Nafarroak baldintza batzuk bete behar ditu zaborren aferan. Gisa honetan, 2005. urterako herrial-de osoan biltzen den zaborra-ren %65a birziklatu behar du guttienez. Gaur egun kopuru hori hagitz urrun gelditzen da, baina pixkan-pixkan hobetzen joateko asmoa du Nafarroako Gobernuak. Helburu hori lortzeko, zabor guziaz hiru zentru nagusitan tratatzea erabaki du-te: Erriberan, Jurramendin eta Iruñerrian hain zuzen ere. Za-

bortegi hoiek prestakuntza egokia dute ahalik eta gehien birziklatzeko, eta beraz, sobe-ran daude Nafarroako gainera-ko zabortegiak. Baztan, Malerreka eta Bortzi-rietako Hiri Hondakinen Man-komunidadeak aspalditik ari dira zaborrekin zer egin ezta-baidan. Itxura denez, erreka guziko zaborrak hemendik kanpora eramatea erabaki du-te azkenean. Baina Iruñerriko zabortegira eramanez aitzinetik, eskualdean nonbait elkartu be-harko dira zabor guziaz.

Transferentzia planta Legasan

Gisa honetako azterketak egi-ten dituen enpresa baten arabe-ra, Legasa inguruan egin be-harko litzateke transferentzia planta hori. *Hibaiaren iker-*

ketak dioenez, Legasako Aceralia fabrika eta Donezte-beko herriaren artean dagoen lur eremu bat da horretarako egokiena. Malerrekako Man-komunidadea lantegiko arduradunekin hartu-emanetan hasi zen, Aceralia baita lur zati horren jabea. Guk dakigu-la, Mankomunidadeak orain-dik ez du baiezkorik jaso, bai-na ezta ezezkorik ere. Dena den, TTIPI-TTAPARA igo-rritako ohar batean adierazten duenez, Bertizaranako Uda-lak ez du onartzen transfe-rentzia planta Legasako kon-tejuan egitea, herritik sobe-ra hurbil dagoela eta. Beraz, ikusi beharko da alde guzien arteko negoziazioek aitzinera egiten duten, behin-goan zaborraren aferari atera-bide egokia emateko. ■

LEGE GORDAILUA: NA-1324/85
FRANKEO ITUNDUA: 34/79
TIRADA: 7.100 ALE

Helbidea:

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
Herriko Etxeko Plaza, 1
E-31780 BERA (Nafarroa)
Tfnoa: (+34) 948 63 11 88
Faxa: (+34) 948 63 12 91

Internet:

<http://www.jalgi.com/topagunea/ttapi-ttapa>

e-mail:

ttapi-ttapa@topagunea.jalgi.com

Jabea: TTIPI-TTAPA FUNDAZIOA.
Presidentea: Pello Apezetxea.
Kudeatzailea: Joxemanuel Iri-
goien. **Zuzendaria:** Aitor Aroze-
na. **Publizitatea:** Kulturkari, S.L.
Administrazioa: Amaia Goia.
Erredakzioa: Aitor Arozena,
Asier Gogortza. **Berriemaileak:**
Joseba Azpiroz, Esteban Aroze-
na, Juana Mari Saizar, Iban Isasi,
Patxi Iriarte, Patxi Otxandorena,
Jaione Otxandorena, Alba Fer-
nandez, Lorena Galarregi, Pa-
blo Mendiburu, Franck Dolosor,
Margari Etxenike, Koro Irazoki,
Ana Mari Etxeberri, Martine Goie-
txe, Frederick Berruet, Elixabet
Iturria, Garbiñe Maiz, Oskar
Txoperena, Pello Apezetxea, Ai-
tor Arozena, Asier Gogortza.
Kolaboratzaileak: EHNE Nafa-
rroa, Mikel Bezunartea, Belarra...
Inprimategia: Gertu. **Erakunde**
Laguntzaileak: Bera, Leitza, Goi-
zueta, Arano, Areso, Baztan, Ur-
dazubi eta Sarako udalak, Bortzi-
etako Euskara Mankomunitatea,
Malerrekako Zerbitzu Mankomu-
nitatea...

Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria ... 2.000 Pta.
Iparr Euskal Herria ... 140 Libera
Europa ... 3.500 Pta.
Amerika ... 15.000 Pta.



Aldizkari honek Nafarroako
Gobernuaren laguntza jaso du

GAURKOTASUNEN GAIA

Produktu transgenikoak merkatuan dira jadanik

Jaten ditugun elikagaiak aukeratzeko eskubidea bermatu behar da



Mikel LASARTE
EHNEko kidea

Nik uste edonork,
honezkero, jan iza-
nen duela produk-
tu transgenikoren

bat, izan ere, legeak dioenaren
aurka, ez baitira etiketatzen. Ar-
toa da produktu transgeniko za-
balduea, eta Artiach bezalako
gailurretan ere aurkitu dezakegu.
Teknologia aurreratuen bidez
planta edo animalien geneak bes-
te planta batetan sartzean oina-
rritzen da transgenikoen aferra.
Adibide bat aipatzearren, toma-
teari arrainaren geneak sartzen
dizkiote bere iraupena luzatu ahal
izateko.

Zoritarrez duda-muda izuga-
rriak daude kontu honekin. Kon-
siderazio etiketaz aparte, trans-
genikoa jan zuten arratoi talde ba-
tetan malformazioak sortu ziren.
Gainera, interesa ekonomiko ze-
hatzak dituzten multinazionalak
kontrolatzen dute transgenikoen
garapena. Nekazaritza tradizio-
nalarren ibilbidea arriskuan jar-
tzen da hauen menpe erori ezke-
ro. Kontu honetan, nik uste bi kla-
be daudela. Batetik, kontsumi-
tzaileok jan nahi ditugun elika-
gaiak aukeratzeko eskubidea ber-
matu egin behar da, eta bestetik,
prudentziaz, transgenikoen era-
bilera atzera egin beharko litza-
teke, Europako zenbait nazioetan
gertatzen ari den bezalaxe.

Nik uste informazio aunitz falta dela produktu transgenikoen inguruan



Maite LEQUONA
Bera, Biologiako ikaslea

Batzuentzat pro-
duktu transgeni-
koak XXI. mende-
ko iraultza zientifi-

koa dira, eta bertzeko batzuentzat
berriak, biziarentzako arrisku bat.
Gizakiaren osasunerako eta in-
gurugiroarentzat ere bai. Baina
gehiengoarentzat gai ezezaguna
da. Bioteknologia oso zientzia ber-
ria da. Honetan lan egiten dute-
nek diote, produktu transgeni-
koei esker txerto eta farmako ber-
riak sortzen ahal direla, eta bai-
ta nekazaritza produktua haundia-
gotu ere, erbizida eta plagizida
gutiago erabiliz. Baina egia da
ere dibertsitate biologikoa gutti-
tu egiten duela eta jendearengan
ere hasi direla osasun arazo ba-
tzuk nabaritzen: alergiak...

Baina zerk egiten du kalte gehia-
go: genoma manipulatu duten
landareen erabilera hedatzeak,
edo erbizida eta plagiziden era-
bilerak? Hor dago nekazaritza bio-
logikoa ere, itxuraz arazoz hau kon-
pontzeko tresna.

Nik uste informazio aunitz falta
dela produktu transgenikoen
abantaila, eragozpen eta eragin
posiblei buruz, eta ezin dela hain
arin hitzegin gai honetaz.

Horrelako produktuak merkatu-
ratzen direnean, artoa eta toma-
tea adibidez, suposatzen da iker-
keta batzuk segitu dituztela, bai-
na egokien aizenaz produktu-
etan informazio guziaz ematea.

Produktu batek osagarri transgenikoren bat baldin badu ager dadila etiketan



Jexux ZABALETA
Leitzako dendaria

Nikez nuke esanen
sortzen diren gau-
za berri guziaz txar-
rak direnik, baina

ezta onak direnik ere.
Transgenikoei buruz mintzatze-
koan nahiko eszeptiko agertzen
naiz, jakinda multinazionalak di-
tuzten laboratorietatik sortuta-
koak direla. Denok dakigu zein
den hauen helburu bakarra: ahal
duten diru gehiena irabaztea, ale-
gia.

Entzundudanez Nafarroako Erri-
beran ere joan den urtean baino
arto transgeniko gutxiago eroin
omen dute, saltzeko garaian ara-
zoak izan dituztelako. Kontsu-
mitzaileak ohiko artoa nahiago
du, nonbait.

Nik nire janaridenda ez dakit
produktu transgenikorik saltzen
dudan, bainasaiatuko naiz jakiten.
Zerbaitek osagarri transgeniko-
ren bat badu ager dadila garbi eti-
ketan, hori da nik eskatzen dudan.

Dena den, jendeak eta denborak
erakutsiko du produktu transge-
nikoak onak edo txarrak diren. Bi-
tartean lanak...



ttapi-ttapa
fundazioak
Europako
Batzordearen
dirulaguntza
jaso du

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

• Astelehenetik asteazkenera 9-13tara eta 16-20tara
• Ortzegun eta ortziretara, 8etatik 15etara

Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 948 637050

BURLATA:

ARTEKARI, S.L., ☎ 948133328 • 133346. Faxa: 948133713

Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- ☛ Langile Autonomoak
- ☛ Nekazariak eta mendi-langileak
- ☛ Nominak eta Aseguro Sozialak
- ☛ Lan-kontratutarako laguntzak
- ☛ Enpresa berri ezberdinen sortzea
- ☛ Diru-laguntza ezberdinak
- ☛ Kontabilitateak
- ☛ IVA eta IRPF
- ☛ Errenta aitopenak
- ☛ Elbarritasun eta jubilazio tramiteak
- ☛ Bideragarritasun planak

IRAKURLEAK MINTZO

**Greba orokorra
apirilaren 30ean:**

Apirilaren 23, ostirala, I.E.S. Lekaroz-Elizondoko B.H.I. institutuan ordu erdiko lan uztea egin zen ikasleen bizi baldintzak salatu nahirik. Hil bereko 30ean, berriz, egun guztiko greba egin zen. Helburua ikasleek sofritzen duten egoera gogorari aurre egitea zen. *"Ikasketak gura-soek ordaindu eta festetan bizi garela uste da, baina gure errealitatea bestelakoa da. Bizitzaren zati handi bat ikasten ematen dugu, lan duin bat izateko, baina langabezia, soldata baxuak eta ETT-ak topatzen ditugu gero".* Teorian sistema publikoa den arren, sekulako dirutzak ordaindu behar dira garraioan, matrikulan, material didaktikoan... Horregatik apirilaren 30ean Euskal Herriko lau herrialdetako ikastetxe guztietan egun osoko greba egin zen, hezkuntza-sistema lan merkatura egokitzea eta ikasleen zerbitzuak hobetzea eskatuz, baita 35 orduko lanaldia ere.

MIKEL SALABERRI ETA
CAROLINA DOMINGUEZ

**Boliviako Aymarak:**

DBHko 2A eta C mailako ikasleak gara. Iaz gelakideen artean ume bat eskuratzea pentsatu genuen. Tutorea-
rengana jo eta ONG bateri

laguntzea askoz hobeto izanen zela esan zigun. Irungo Taupadak ONGarekin harremanetan jarri ginen. Hauen helburu nagusiak umeen eta emakumeen heziketan laguntzea da, hauek baitira arazo gehien dituztenak. Emakumeak nahiko diskriminaturik daude, horregatik elkarre bat egin zuten hango emakumeen laguntzeko. Bestalde barku bat eraikitzen ari dira produktuak beste lekue-
tara garraiatzeko.

Guri hau dena han egonda-ko batek kontatu zigun diapositiben bidez, Toño Puertak hain zuzen ere. Aurtenguztaz, dirua biltzeko asmoa dugu. Lehengo urtean institutuan bakarrik bildu genuen, baina aurtenguztaz gain herriak ere parte hartzea nahi dugu. Horretarako kontu korronte bat ireki dugu eta herri osoan eltxituak jarri.

AMAZABAL INSTITUTUKO
DBHko IKASLEAK

**Ttipi-ttaparen
neurketa delata...**

Aspalditik dut horrelako zerbait idazteko asmoa eta gogo-
a. Ttipi-ttapakoek "Hedapenaren neurketa"-z egiten duzuen interpretazioa (ttipi-ttapa 253. zen., azkenekoa) desorekatua, kontextutik kanpoko eta horregatik desegokia iruditzen zaidalako. Po-
breia iruditzen zait benetan,

OHARRA:

*Eritzi ezberdinek
tokia izan dezaten,
ez da komeni
makina idatzitako
25 lerro baino
luzeago idaztea
gutun hauetan.
Idatzi duenaren
izen-deiturak,
telefonoa, helbidea
eta Nortasun
Agiriaren fotokopia
agertu beharko
dira. Laburtu
beharra izanez
gero, **ttipi-ttapa**
bere esku izanen du
horretarako
eskubidea.
Ez dira
argitaratuko beren
nortasuna agertzen
ez digutenen
iritziak.*

kopuruak soilik neurtzen baitituzue beste inolako erizpiderik gabe. Nik ez dut egunkari guztien defentsa egin nahi, noski, ezta ttipi-ttapa hamaboskariak betetzen duen funtzioen aurka jarri nahi ere. Baina hainbat beharrezkoak ez liratekeen zehaztasun egin nahi nituzke. Esan dudanez, ttipi-ttapa hamaboskaria da eta besteak (orohar) egunerokaleratzen direnak. Beraz, zati hamalau eginez gero egun bakoitzeko honek "produzitzen" duena askoz ere gutxiago

da. Neurri honetan bakoitzak euskarari aportatzen diona neurtzen badugu (eremua kontuan hartuz, zonaldekoa, Euskal Herri mailakoa,...) oso ondorio ezberdinak ateratzen daitezke. Bestalde, gure etxetara dohainik banatzen da, besteren artean udalek egiten duten aportazioarengatik. Denek ezin dute gauza bera esan nahiz eta batzuek merezi... Beraz, ez dira konparagarriak. Erizpiderik gabeko neurketan sar genitza-
ke laster gure etxetara bidaliko dituzten hauteskunde propagandakopuruak edota zenbaterik ikusten duen telebista,... edota futbolazzenbaterik hitz egiten duen,... Garbi ikusten dugu ez dela "logikoa" besterik gabe horrela neurtzea euskarazko prentsa, gizartearekiko aportazioa, dituzten eta sortzen dituzten baliabideak,... Hamaboskari bat lehen adierazi nahi izan dudanez eguneroko prentsaarekin konparagarri. Bakoitzak bere tokian egoten jakin behar du eta berari dagokiona aitortu, baina ez gehiago!

MIKEL ILLARREGI
(LEITZA)

**Legasako zabor
biltzeari buruz:**

Berriki Bertizaranako bizilagunen Mankomunitatearen

eskutitza hartu dute Legasa ondoan hondakinak biltzeko Biltegi bat egin behar dela erranez. Bizilagunen kezka eta gauzak argitzeko gogoak ikusita, hauxe jakinarazi nahi dugu:

Martxoaren 5ean Malerrekako Mankomunitateak Aceraliarekin bilera bat egin zutela adierazi zigun. Aceraliako arduradunak prestager-
tu omen ziren fabrika ondo-ko lurretan biltegia egiteko, baina trukean Bertizaranako Udalararekin bilera bat egitea eskatu zuten, Aceraliako kontuetaz aritzeko.

Miguel San Miguel Malerrekako Mankomunitateko presidentek bilera hori deituko eskatu zion gero Bertizaranako Udalari.

Honek, bere aldetik, apirilaren 16an honako puntuak adostu zituen udalbatzarran: 1.- Malerrekako Mankomunitateari zera jakinaraztea: Bertizaranako Udala ez dela bertze Udalen aferatan sartzen, eta bilera hori Aceralia enpresak eskatzen duenean eginen dela, orain arte ez baitu eskatu.

2.- Eusko Alkartasunako zinegotzien abstentzioarekin, erabaki zen ez onartzea zabor biltzeari hori Legasako Kontzejuan egitea, Legasatik hain hurbil egonda ez baita lekurik egokiena.

BERTIZARANAKO UDALA



Bieur

Informatika zerbitzuak

Ordenagailuen salmenta eta konponketa

Informatikako osagarrien salmenta

Software, informatika liburuak, jokoak, etab...

Sare lokalen instalazioa

Interneteko zerbitzariak

Kanttonberri karrika, 4
31780 BERA

Tel.: 948 63 10 83
Fax.: 948 63 06 73

E-mail: biur@jet.es
biurcb@jet.es

✎ Jose Mari ARRIBILLAGA ELA

Langabeziak badu soluzioa: 35 ordu eta soldata soziala



Aurten, ELAk, LABekin batera, hasiera eman dio Enpleguaren aldeko kanpainaren bigarren faseari. Kanpaina hiru ardatz nagusietan oinarritzen da:

- Lanaldiaren murriztapena 35 ordutara.
- Ordu extrak desagertzea.
- Soldata soziala langabezia daudenentzat.

Enpleguaren kanpainari lehentasunik haundiena emandio du datuek ez baitute baikortasun ofiziala bermatzen:

- Nafarroan langabezia %9,6koa da. 25 urtez azpikoen artean langabezi maila %25,9an dago (%39,8 emakumeen artean). Baina argi dago enpresari entzat langabezia ez dela arazo bat, alegia, ongi datorkie la ere esan genezake langabeziak soldatekiko eta lan baldintzekiko beherantz presionatzen baitu.

Eskualdean 7.000 lagun inguru dira biztanle aktiboak, eta langabezia %15ean dago. Nahiz eta ohituak egon, egoera oso larria da. Langileok mezu hau barneratu behar dugu: langabeziak lanaren baldintzak jeistea eragiten du, edozein baldintzetan lan egiteko prest dagoen jendea dagoelako.

Egoera horri aurre egiteko bi erronka nagusi ditugu:

- Lanaldia 35 ordutara murriztea enplegua sortzeko. Egun saltzen diguten gizarte baztertzailaren aurka horrelako erabakiak bultzatu behar ditugu horrek lanpostu aunitz sortuko litzukeelako

eta aberastasuna askoz hobe banatuko lukelako.

- Ordu extrak kentzea: gure eskualdean, %10era jaitziko litzateke langabezia ordu extrak desagertu ezkeror. Hiru arrazoi ordu extrak kaltegarritzat jotzeko:

- Arriskua dago ohitu gaitzekelako diru horrekin bizitzera, baina egun batetik bertzeira desagere daiteke.

- Enpresaren esku dago zeini eskaini ordu extrak eta zeini ez, sarritan lema honen pean: "ondo portatzen bazara emango dizkizut, bese-

Langileok mezu hau

barneratu behar dugu:

langabeziak lanaren

baldintzak jeistea eragiten

du, edozein baldintzetan

lan egiteko prest dagoen

jendea dagoelako.

tela ez".

- Eta kasu askotan ordu extraren atzetik soldata baxu bat dago.

Bertzetik, ETT eta zerbitzu enpresen desagertzea bultzatu behar dugu, eta gazte eta emakumeek nozitzen duten bazterkeria eraldatu.

Soldata sozialaren defentsa ere egiten dugu, gutxieneko irabazirik ez dutenei oinarritzko errenta bermatu behar zaielako.

Soldata sozialaren alde zein 35 orduko lanastearen aldeko greba deitu dugu, jakinenduz gero bezala. Beraz, horren alde borrokatzeko maiatzaren 2 lan greba orokorrean parte hartzera deitzen ditugu eskualdeko langile guztiak.

✎ Irantzu IZETA Ezinduentzat ludoteka

Aisialdiko ekintzak ezindu psikikoekin Elizondon



Hiru hilabete pasatu dira hasi ginenetik eta taldea haundia ez bada ere aski sendoa da. Ez gina kigun

funtzionatuko zuen edo ez, baino argi ginuen hutsune bat bete genezake eta gogor ekin genion lanari.

Europatik emandako dirulaguntzak, baita Nafarroako Gobernuak Ongizate Saila eta Gaztediaren Institutorenak, ateak ereki zazkigun, behinpein hasterako orduan. Dudarik gabe, aitzinet segitzeko go-go baldin badugu lortutako giro paregabea-ri eta sortutako harremanei esker izan da. Talde polita, hamar bat lagunez osatutakoa, monitoreekin batera hamabortz. Guziek Poxkonean lan egiten dute. Hala bada, beren bizitzako arlo hori nolabaitere beteta dago.

Baina, gainerako arloekin, zer pasten da...? Zoritarrez, ez dago deusere.

Gure ustetan denbora librearen erabilpena gorki inportantea izaki, hortan oinarritu gara berexiki eta ekintza diferenteen bitartez, autonomia, garapen pertsonala eta hainbat eta hainbat gauza landu nahiez gabilta. Eskulanak, kirolak, sukaldaritza, dantzak, ateraldiak eta noiz edo noiz merenduren bat egitea zinez onuragarriak dira eta ez preziski berendako bakarrik, denek horren beharra baitugu.

Bertzalde, egindako ekintza guztiak ez ditugu taldera bakarrik mugatzen eta eguna pasatzeko egiten ditugunate-

raldietan (Iruñera, Donostiara, Baionara...) usaian etortzen ez den jendea ere animatzen da. Aldi berean, antolatzen diren herri ekimenean parte hartzen saiatzen gara, gizartearen integritateak duen garrantziagatik. Adibide gisa, "Hamabi Ordu Eskuaraz" bestan batzuk antzerkian aritu ziren, bertzeak berriaz dantzetan gainerako guzietan batera, eta arras ongi pastu zuten, ahotan zuten irria horren lekuko.

Xauli Gazte Elkartetik sortutako ekimen hau, "Aisial-

Eskulanak, kirolak,

sukaldaritza, dantzak,

ateraldiak eta noiz edo noiz

merenduren bat egitea

zinez onuragarriak dira,

eta ez preziski berendako

bakarrik, denek baitugu

horren beharra.

diko Ekintzak Ezindu Psikikoekin", hasmentan sei hilabetetarako sortu bazen ere abendurarte luzatuko da eta... Nork daki! Diru iturri bila gabilta, lortu ezkeror jarraipena emangodiogu, interesgarria delako eta egiazki merexi duelako.

Elizondon aritzen gara larunbetero, ANFAS elkarteak uzten dakun lekalean, arratsaldeko 5etatik hasita 7,30ak arte. Gurekin harremanetan paratu nahi izan ezkerorri hurrengo helbidera: Elizondoko Pedro Axular 6A, 1.a eskuin edo bertzenaz deitu 948 452 201 telefono zenbakira.

PRENTSATIK BILDUTAKOAK

11 GALDERA LABUR



Nafarkaria 99ko maiatzaren 14a

«Gipuzkoako ligan jarraituko dugu jokatzeko. Arazoa da sei neskak utzi egin dutela taldea».

«Emakumezkoen futbola hor dago, arbolak bezala, baina ez du bizitasunik».

Jose Luis Altzugarai
Gure Txokoako entrenatzailea
Nafarkaria 99-05-14

«Ez gara inozoak; aholkuak eskatu ditugu. Espedizioaren nondik norakoak Felipe Uriartekin prestatzen ari gara».

«Jendeak babes haundia eman digu. Hala ere, txunditurik daude, normalean inor ez baita mendi erraldoi horietara joaten. 8.000ko batera? Erotu zarete. Horixe diote batzuek».

Gasherbrum II
Bortzirietako espedizioa
Gara 99-05-13

◆ **Noiz hasi hintzen euskara erakusten?**

❖ Urriroan, aurtengo kurtsoan.

◆ **Zenbat ikasle ditun denetara?**

❖ 17, denak Sakontzekoak.

◆ **AEKren alde on eta txarra:**

❖ Hoberena giroa eta txarrena agendaren mukutzea edo pilatzea.

◆ **Bai Euskarari kanpaina, Korrika... hurrengoa?**

❖ Hurrengoa Bai Euskarari, Korrika... segitu behar delakoz lanean.

◆ **Nola nahi huke hire ikasleek hi ikustea?**

❖ Lagun bat, haietako bat bezala.

◆ **Euskararen inguruan lortu gabeko helburu bat?**

❖ Denak nahi duguna, behin betiko Euskal Herria euskalduntzea eta nik berexiki herri-hizkerari bultzada bat ematea nahi nitek.

◆ **Euskal kantari bat?**

❖ Ruper Ordorika.

◆ **Arantza, Gasteiz, Iruñea... herria ala hiria?**

❖ Hirian behin-behinekoak, Arantzan betiko.

◆ **Iruñeko txoko bat?**

❖ Iruñazarra Euskaltegiko euskal txokoa.

◆ **Hire zaletasunik haundiena?**

❖ Musika egitea eta entzutea.

◆ **Estresa edo agobioa kentzeko erremedio bat?**

❖ Gitarra jo edo jotzen saiatzea.



Amaia TELLETXEA

ARANTZA

23 urte - AEKko irakaslea

ttipi-ttapa telebistaren programazioa

ASTELEHENA, 24

13:00 Herriz Herri: Errep.
21:00 Berriak
21:30 Jokoa Solas: Kirol emaitzak eta berriak.



ASTELEHENA, 31

13:00 Herriz Herri:
21:00 Berriak
21:30 Jokoa Solas

ASTEARTEA, 25

13:00 Berriak (err.)
13:30 Jokoa Solas (errepika)
21:00 Berriak



ASTEARTEA, 1

13:00 Berriak (errepika)
13:30 Jokoa Solas (errepika)
21:00 Berriak

ASTEAZKENA, 26

13:00/13:30 Berriak (errepika)
21:00 Berriak
21:30 Bidegurutze-an.



ASTEAZKENA, 2

13:00/13:30 Berriak (errepika)
21:00 Berriak
21:30 Bidegurutze-an.

ORTZEGUNA, 27

13:00 Berriak (errepika)
13:30 Bidegurutze-an (errepika)
21:00 Berriak



ORTZEGUNA, 3

13:00 Berriak (errepika)
13:30 Bidegurutze-an (errepika)
21:00 Berriak

ORTZIRALA, 28

13:00/13:30 Berriak (errepika)
21:00 Herriz Herri Bortzirietako eta Male-rrekako berriak, herrietako berrie-maileen eskutik.

ORTZIRALA, 4

13:00/13:30 Berriak (errepika)
21:00 Herriz Herri



IRAKASKUNTZA

LAB garaile eskola publikoetako hauteskunde sindikaletan

Maiatzaren 13an burutu ziren Nafarroako irakaskuntza publikoko zentruetan irakasleen ordezkari sindikalak aukeratzeko bozketak. Eskualdean Elizondon (Baztan, Urdazubi eta Zugarramurdikoak), Lesakan (Bortzirietakoak), Donezteben (Malerrekakoak) eta Leizaldea

Eskualdea	Zentsoa	Botuak	STEE	LAB	ELA	AFAPNA	UGT	CCOO	ANPE	CSIF
Baztan, Urdazubi eta Zugarramurdi	140	94 (%67)	20	37	14	3	8	7	0	3
Bortziriak	96	69 (%70)	17	36	9	1	0	3	1	0
Malerreka eta Bertizarana	79	62 (%78)	18	28	7	3	0	0	0	5
Leitza eta Larraun	138	95 (%69)	18	48	8	6	2	6	0	6
Guztira	453	320 (%70,6)	73	149	38	13	10	16	1	14

koak), Donezteben (Malerrekakoak) eta Leizaldea

eta Larraungoak) eman ziren bozak. Goiko koadroan ageri denez,

LAB sindikatua izan da nagusi eskualde guzietan, emandako botuek

erdia kasik beretzat izan baitira. STEE-EILASEk 73 boza lortu ditu.

OSPAKIZUNAK



1949ko Kintoen Besta Etxalarren

1949an sortutako gizaseme eta emakumeak bildu ziren Etxalarko Bentan apirilaren 24an, beraien kinto-afaria egiteko. Gehien bat lesakarrak, beratarrak eta etxalartarrak bildu ziren. Aurtan mende erdia beteko badute ere, oraindik sasoi ederrean daudela erakutsi zuten Bortzirietako kintoek.

Argazkia: Goiko

GRUPO  ZURICH

ASEGURO OROKORRAK
Itzea, 4 — BERA — ☎ 948 630763

Lanchas

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura orokorrak

Bera ☎ 948630735



 **ASINE.**

Rafael Pombar Sainz

BAZTAN-BIDASOako ENPRESEN
AHOLKULARITZA INTEGRALA

Eztegara, 8 - behea • BERA
☎ 948 630201 - Faxes: 948 630255

LOZOTEGI-JAZONE

Altzate, 19 • 948630786 • BERA

ROMANO
PINTURAK

Barnealdeko dekorazioa,
pintura, papera, moketa,
kautxo eta sintasola.

☎ 948630941 • 948631137 • BERA

Manuel Iriarte ez da alkatetzara berriz aurkeztuko

Bere taldeak gehiengo absolutua izan du Udalean, 6 ordezkarekin

ASIER GOGORTZA

Hurrengo lau urteetan alkate berria izanen dugu Beran. Horixe da ekainaren 13ko hauteskondeek herrirat ekarriko duten aldaketarik haundiena. Manuel Iriartek 12 urte segidan egin ditu alkatetzan, eta aurtan erretiratzea erabaki du, bere talde osoarekin batera. Honenbertzez, Josu Goia, Jose Luis Senper eta Jabier Iturriaren artean erabakiko da heldu den legegaldirako alkate postua.

EH eta EA jadanik Udalean talde finkoak zirela kontuan hartuta, beharbada EAJ-PNVren zerrenda izandu da sorpresarik haundiena. Hauen buru Jabier Iturria doaie, orain arte 'Herrialde'rekin kultura zinegotzi lanak egin dituen.

HAUTESKUNDEAK

EA



Jose Luis Senper Etxeberria

ZINEGOTZI-GAIK:

2. Fco Javier Leiza Oteiza
3. Jose Ramon Martin Retegi
4. Ainhua Goñi Petrarena
5. Agustin Portu Etxabide
6. Jose Luis Igoa Mariñelarena
7. Jose Ignacio Prieto Irazoki
8. Jose Mari Irazoki Iriarte
9. Juan Enrique Abril Berasain
10. Elena Santesteban Gelbenzu
11. Aitor Martiarena Cordoba

EH



Josu Goia Etxeberria

ZINEGOTZI-GAIK:

2. Maite Elgorriaga Errandonea
3. Imanol Larrañaga Alberdi
4. Oskar Goñi Petrarena
5. Bixente Goia Etxebeste
6. Eneritz Mitxelena Irazoki
7. txarro Zubieta Erkizia
8. Iñaki Gogorza Villabona
9. Josu Unson Pabolleta
10. Mari Carmen Prieto Beltran
11. Pascual Etxeberria Unsain

EAJ-PNV



Francisco Javier Iturria Linazasoro

ZINEGOTZI-GAIK:

2. Fernando Etxegarai Etxebeste
3. Fco Javier Garcia Garcia
4. Isidora Agirre Ubiria
5. Fco Javier Etxenike Urroz
6. Bernardo Barredo Telletxea
7. Juan Jose Etxebeste Malda
8. Juan Carlos Martiarena Cordoba
9. Javier Dagerre Irigoien
10. Vicente Lasaga Sansiñena
11. Luciano Erkizia Azkue

flash

Mugaz gain

Eskeletako haurren antzerki jardunaldiak heldu den hilaren hasieran egingen dira, ekainaren 31etik 3ra hain xuxen ere. Lamixine Antzerki Taldeak antolatzen ditu topaketa hauek, eta gaztetxoak antzerkiaren mundura hurbiltzea du helburu. Herriko ikasleez gain kanpoko ikastetxeetatik ere etortzen dira parte hartzera.

Herriko obrak

Azkenean brea bota dute herria zeharkatzen duen bidean. Hondarreko hilabeteetan Altxatetik Beraratedo Agerrarat joatea "safari" bat bihurtu zitzaigun iaia, baina bebingoan zola moldatu dute. Orain, auzoetara doazin bideak moldatzea falta da. Gas naturala eskatzen den heinean joanen dira bideak zolaberritzen.

"Shakespeare osoa (gutxi gora behera)"

Maiatzaren 29an Tanttaka taldearen obra ezagun hau ikusteko modua izanen da Berako Kultur Etxean. Joseba Apaolaza, Niko Lizeaga eta Asier Hormaza dira aktoreak. Lehengotik erosi ezker 800 pezetatan daude sarrearak, baina momentuan 1.000 Pta ordaindu beharko da.

oskorri
& the pub
ibiltaria



Oskorriren Pub Ibiltaria maiatzaren 26an heldu da Berako Kultur Etxerat

Heldu den asteazkenean, goizeko 11,30etatik aitzinera, Oskorrik bere emanaldi berexia eskainiko du herriko lau ikastetxeetako ikasleentzat. Euskal Herri osoan ibili dira beren Pub Ibiltariarekin, eta arront harrera hona izan dute orain arte. Kontzertu honen sekretua publikoak parte hartzen duela da, aitzinetik partitzen diren liburuxketan euskal kantu tradizionalen letrak irakurtzen ahal direla.



zapatak
osagarriak
konponketa
kalotxa

Kanttonberri 6 Bera
© 948 631516



Iriarte-Echandi, s.l.

- Aholkularitza
- Artekartitza
- Aseguruak

Kanttonberri | BERA | Tel eta Faxe: 948 631169

Javier Manterola

TEKNIKO
INSTALATZAILEA
iturgintza • gasa • kalefakzioa

Tfnoa: 948 630 031•BERA



© 948630052•Zalain•BERA



Urrezko Ezteiak ospatu zituzten maiatzaren 11n

Maiatzaren 11n ospatu zen Nafarroako Aurrezki Kutzaren Urrezko Adina elkarteko urteko besta. Aurten 50 urte esposaturik betetzen dituzten mai-te Ortega eta Javier Sesma eta Agustin Etxabide eta Francisca Aierza omen-du zituzten. Plazan aurrezkua eskaini zieten Endika Mendegiak eta Zulangorrokoeen bi ilobek.

Argazkia: Aitor

Musika ikasteko aukera eman nahi zaie helduei

Lesakako Musika Eskolak instrumentu ezberdinetan trebatzeko modua emanen du

AITOR AROZENA

Lesakako Musika Eskolak, 1998-99 ikas-turte honetan helduen tailerrak izan duen har-rerra ona ikusita, heldu den ikasturterako ere matrikula epea ireki du. Tailer hau, musika eza-guera izan baina prak-tika utzi dutenentzat nahiz musika ezagutzen ez duten pertsonentzat zabalik dago, azken fi-nean, musika ikasi nahi duten guzientzat. Helduendako tailer ho-nek, musika ikasiz on-

gi pasatzea eskaintzen du, eta horretaz gain, musika tresnabat jotzen ikastea. 1999-2000 ikas-turtean, akordeoia, kla-rinetea, zeharkako xi-tula, pianoa, saxofoia, tronpetea, txistu, biboli-na eta gitarra ikasteko aukera zabalduko da. Azken tresna hau, no-bedadea izanen da hel-du den urtean, beti ere guttiengo ikasle kopu-ru batera ailegatzen ba-da. Eraberean, Musika Eskolatik aipatu dute-nez, Arantza, Etxalar eta Igantziko jendeari ere

tailer honetan parte har-tzeko modua eskaini nahi zaie.

Matrikulatzeko edo informazio gehiagora-ko Lesakako udal bule-goetara jo behar da, maiatzaren 31 baino le-hen, goizeko 8etatik 11,30etara.

San Martin elizako bortz erretaula Interes Kulturalako Ondasun izendatuak

Vianako Printzea Erakundearen txoste-nean oinarrituz, Lesa-

HAUTESKUNDEAK

PNV- EA



Jose Luis Etxegarai Andueza

ZINEGOTZI-GAIAK:

2. Carlos Ubiria Portu 3. Severiano Txoperena Matxikote 4. Esteban Etxebeste Apeztegia 5. Juan Mitxelena Larralde 6. Jesus Mari Zapirain Altzugarai 7. Esteban Irazoki Irazoki 8. Santiago Larralde Almandoz 9. Jose Ramon Taberna Arana 10. Julian Iantzi Mitxelena 11. Jose Zozaia Larralde

EH



Joxe Emilio Txoperena Zugarramurdi

ZINEGOTZI-GAIAK:

2. Xabier Portu Telletxea 3. Luis Mari Atorrasagasti Gastaka 4. Pello Astiz Elberdin 5. Edurne Rekondo Ferrero 6. Jose Antonio Etxepeteleku Zozaia 7. Jose Luis Cerezo Conde 8. Begoña Igoa Almandoz 9. Fco Javier Martin Yera 10. Iñigo Olaetxea Altzugarai 11. M^o Dolores Albizu Salaberria

kako San Martin parro-kiakobortzerretaula ba-rroko (erretaula nagusia, Santa Katalinaren erretaula, Bakardadeko Ama Birjinaren erre-aula eta gurutzatuaren erretaula) Interes Kulturalako Ondasun deklaratzeko espedien-tea ireki du Nafarroako Gobernuak Hezkuntza eta Kultura Departamenduak.

Bortzirietako futbito txapelketa

Igande honetan, maiatzak 23, akautuko da Beti Gazte elkarte-ko areto-futbol taldeak, Lesakako Udalaren la-guntzaz antolatutako Bortzirietako futbito txapelketan izena ema-

teko epea. Talde bakoit-zean hamalau urtetik goitiko hamar lagun ari-tzen ahal dira, horieta-tik gehienez lau fede-ratuak. Izen-emateak, Koxkilla ostatuan edo Berako Errekalden egi-ten ahal dira, horretara-ko mila duro utziz. Txapelketa ligaxka sis-temaz jokatu da, be-ti bezala, Irain eskola-ko pilotalekuan.

Euskal Jaieko zozketa

Tanturumairu dantza taldeak antolatutako Euskal Jaian, bi lagu-nendako afari bat zoz-ke-tatu zen. Saria Edurne Agirrerri egokitu zaio, 159. zenbakiaren jabea baitzen.

Manuel Zamorano
Berrizadurak
Pintura
orohar
☎ 689 042 671 • 948 637556
Bittiria, 37 • LESACA

TXIRULA
• bitxikeriak •
• opariak •
• enmarkazioak •
Albistur, 39-K
☎ 948627542 • LESACA

ANA
janaridenda
Bittiria, 41 • ☎ 948637944
LESACA

BITTIRIA
ardotegia
Enixorako ardoa
eta hertzeak
Bittiria, 61 • 948 637337 • LESACA

ETXALAR

Ekainaren 6an egingen da Gasna Feria

Iaz ez eginagatik, indarberritua izanen da aurtengoa

PELLO APEZETXEA

Iaz ez zen plantatu, azkeneko urteetan beza-la, Gasna Feria. Aurten, ordea, indarberritua heldu dela iduri du. Gasna lehiaketa, sari banaketa, produktuen salmenta, artisau eta eskulan egitearen erakustea, berriak egindako aerosteko aukera... Horrez gain, dantzari ttikien dantza saioa meza ondotik, herri-bazkaria eta bazkalondoa plazan bertolariekin, trikitilarien soinuak huts egin gabe.

Latsabe aldean aparkalekua nahi dute egin

Latsabea etxea bota zutenetik, azpialdea kanpotik ekarritako lur eta zaborrez betetzen ari dira eta zelaitzen. Orain baimena eskatu diote Udalari, kamionentzako aparkalekua prestatzeko. Udalak baiezkkoa



Udaberriarekin lore berriak.

Argazkia: Pello

eman dio, Gobernuaren onspena ere beharko dutela adieraziz. Izan ere, hainbat proiektu egin nahi izan dira lehen ere, eta Gobernuak ez du ontzat hartu.

IKAk ikastaroak plantatuko ditu aurten ere

Lesakan eta Etxalarren izanen dira euskara ikasteko eta hobetzeko ikastaro-barnetegiak. Etxalarkoa goi-

mailakoa, EGA titulua eskuratzeko ere balio izaten ahal duena, uztailean eta abuztuan egingen da. Landagain Eskola izan da, aintzineko urteetan, klase, lo eta jateko tokia. Aurten ere bertan egiteko Udalaren baimena dute.

Telefono hariak lurperatzeko asmoa

Orain egiten diren etxe berrietan, edo eta zaharberritzen direne-

HAUTESKUNDEAK

Herri Taldea



Miguel Mari Irigoien Sanzberro

ZINEGOTZI-GAIAK:

2. Jose Maria Maia Ariztegi
3. Fco Javier Irisarri Elizagoien
4. Garazi Lujua Etxenike
5. Jose Javier Zubietza Sanzberro
6. Jose Manuel Irazoki Gainza
7. Santiago Elizagoien Zubietza

EA



Agustin Arribillaga Danboriena

ZINEGOTZI-GAIAK:

2. Manuel Leza Olaizola
3. Gabriel Arburua Etxeberria
4. Juan Mari Iparragirre
5. Aitor Sansiñena Sarobe
6. Jose Mari Pikabea Iziaga
7. Bruno Genua Irigoien.

Horrela, gainera, hormigoizko postea kendu ere egingen ahal izanen dela.

Erriberara bidaia

Larraburua Elkartek prestatutako bertze ibilaldia egingen dute hil honen 20an. Kalahorra-ko merkatu eguna denez, hainbat produktu ikusgai eta erosgai izanen dituzte. Bazkariak eta dantzak beteko ditu, hala ere, egun luzearen ordu gehienak.

KIKKUPA
Ileapaindegia
Tel: 948 637429
Bittiriako Plaza, 3 behea
LESAKA

XATURETXEA

JATETXEA
Tfnoa: 948637027 **LESAKA**

BEKO ERROIA

Lore eta landareak
Frain auzoa • 948637826
LESAKA

Deñe
LENTZERIA
MERTZERIA
Tfnoa: 948 627 514
Beheko Plaza 8, **LESAKA**

KATTU
ostatu - jatetxea
Plater konbinatuak eta menuak
948627573 • **LESAKA**

EROSLE
LESAKA
Kalitate-prezio arteko orekarik hoberena
Frexkuena
zugandik hurbilago
Bittiria, 67 • 948637264

MOLDAKETAK KONPONKETAK
RETOUTCHERIE
de *Manuela*
Gizon eta emakumeen arropen konponketak eta moldaketak egiteko zerbitzu azkarra
Colon Pasealekua 64, behea (Trenbideko zubiaren ondoan)
943 660 292 • **IRUN**

OBRA PROIEKTUAK
✓ Etxe berriak eraikitzeko
✓ Zaharbarritzeko kanpotik eta barnetik
✓ Urbanizazio proiektuak
✓ Obra-zuzendaritza
Udalendako aholkularitza-zerbitzua hirigintza lanetan
BIDASOA
arkitektura bulegoa
Bittiria, 45 • 948 637 503 • **LESAKA**

IGANTZI

Hodeiartz Abesbatzaren emanaldia, zoragarria

Hiru ateraldia antolatu ditu Biltoki elkarteak

OSKAR TXOPERENA

Maiatzaren 8an ilunabarrez elizara hurbildu ginenok goi mailako Hodeiartz Abesbatz tolosararen kontzertuaz gozatu ahal izan genuen. Bagenekien aintzinetik fama haundiko taldea zela, mundu guziko lehiaketetan ibilitakoa, eta, entzun ondotik, bere fama baieztatzea bertzerik ez zaigu gelditzen. Ordu bete zoragarria eskeini ziguten Enrike Azurzaren gidaritzapean abesten duten gazteak, Igantziko Abesbatzaren saiakerak merezi izan duela konfirmatuz. Ohitura den bezala, bi taldeek elkarrekin afaldu zuten Biltokian.

Biltoki elkartearen ateraldiak

Udaberri akabila mugitu xamarra espero du-



Hodeiartz abesbatzak goi mailako kontzertua eskaini zuen elizan. Argazkia: Oskar Txoperena

te Biltoki Elkartekoek, hiru ateraldi antolatu baitituzte garai honetarako: Lehendabizikoa maiatzaren 30ean Mendaurrea eginen dena; bigarrena, Errioxa aldeko bodega batera ekainaren 5ean, eta azkenik, ekainaren 12an itzuliko zaie bisita maiatzaren 2an Igantzin egon ziren goizutarrei. Bidai hauetakoren batetarako interesatuak egon ez-


kero, Biltokiko tabloira jotzea duzue hobere-na, han baitaude hobe-kiago zehaztuak epeak eta ordaindu beharrekoak.

Komunioak igande honetan

Oker genbiltzan aintzineko alean komunioak maiatzaren 29an izanen zirela erraterakoan. Igande honetan, maiatzaren 23an, iza-

HAUTESKUNDEAK

Herri Taldea



Ramon Mari Retegi Iturbide

ZINEGOTZI-GAIAK:

2. Jose Ramon Etxeberria Mendigutxia 3. Jose Txoperena Matxikote 4. Miguel Angel Retegi Iturbide 5. Oskar Txoperena Mendigutxia 6. Maria Jose Arburua Etxeberria 7. Andres Zelaia Elzaurdia

PNV- EA



Eduardo Migelena Legasa

ZINEGOTZI-GAIAK:

2. Juan Antonio Etxebeste Urtxegi 3. Jose Luis Sein Sansiñena 4. Jose Maria Almandoz Tellexea 5. Jose Javier Urtxegi Huizi 6. Felipe Lizardi Trantxe 7. Juana Mari Fernandez Rodrigo

nen dira, bortz haur hauenak: Imanol, Saioa, Ibai, Agurne eta Ane.

Ablitaseko haurrak eta kanpaldiak

Ekainaren 2, 3 eta 4ean kanpotarrak diren haurrak ikusiko dituzue herrian barna. Igantziko haurrek orain dela hilabete pare bat Ablitasea eginiko hiru eguneko bisita itzuliko diete egun

horietan. Igantzin eta Arantzan egin beharreko egonaldia prestatzen ari dira orain eskolan.

Kanpaldi garaia ere badugu. Lizarran dau-de egun hauetan eskolako haur gehienak, urtero egiten dituzten kanpaldiko hiru egunak pasatzen. Hurrengo alee-tan emanen dugu Haur-raren eguna eta eskur-sioaren berri.

Ixema Etxarte

Zolen akutxilatze eta bernizatze profesionala

© 948 637439 • 31700 LESAKA



CONSTRUCCIONES MECANICAS
BERRIZAIN S.L.

Makinaria eraikuntza
Moldaketak eta despiezea
Mantenimendu mekanikoa
Torno, fresadorak, errektifikadorak

Igantziko Bentak • © 948627572 • Faxa: 948637313



ZALAIN
JATETXEA

EGUNEN MENUA ETA KARTA

Boda eta banketeak ematen dira

Zalain Auzoa
© 948631106
BERA

SAROB
okindegia

SANDERS Pentsuak

Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 899 - BERA



BORTZIRI
UNSION ANAIK

sukalderako haltzariak

ERAKUSKETA

Bereau etxea • LESAKA
Tel eta Faxa: 948 637 266



© 948631076 • BERA



LESKA

ARANTZA

Uraren arazoa behin betikoz moldatu nahi da

Iturrietatik depositorako tuboak berrituko dituzte

ELIXABET ETA GARBIÑE

Herriko urak direla eta, beti konponketak puskaka egiten dira. Hori dela eta, obrak behar bezala egiteko, Herriko Etxeak Bordalarrean iturrietatik depositorako tuboak instalazioa moldatzeko dirulaguntza eskatu du Nafarroako Gobernuan. Bi langile kontratatuko dira eta hauen bi hilabetetako gastuak Nafarroako Gobernuak ordaintzea eskatu da. Materiala, berriz, herriak jarriko luke. Horrela, deposito batzuk berritu nahi dira.

Medikuaren kontsulta

Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuak milioi bat pezetako aurrekontua onartu du medikuaren kontsultan lan batzuk



Gaztetxoak ederki aritu dira Nafarroako herri kirol txapelketan.

Argazkia: TTPI-TTAPA TB

egiteko. Barreneko horma pintatu eta leiho berriak paratuko dira.

Herri Kiroletan txapeldun

Maiatzaren 2an jokatutako ziren Sunbillako pilotalekuan Nafarroako Herri Kirol Jolasak izeneko txapelketaren finalak. Arantzak, haur eta kadete mailan talde bana plazaratu zuen,

proba konbinatuan.

Haur mailan, arantzarek kasik jardunaldi guztietan agertutako nagusitasuna erakutsi zuten finalean ere. Proba konbinatua zortzi minutu eta bostz segundutan burutu zuten. Nahiko aisa irabazi zuten, bigarren izan zen Andra Mari taldeari 45 segunduko abantaila aterabaitzioten.

HAUTESKUNDEAK

EH



Jose Ramon Amoros Oskoz

ZINEGOTZI-GAIK:

2. Idoia Etxeberria Makiarra 3. Teodoro Pikabea Zubieta 4. Javier Mari Zugarramurdi Alzuri 5. Amaia Telletxea Larretxea 6. Xabier Altzuri Apezetxea 7. Pantaleon Errandonea Unsain.

PNV-EA



Jesus Mari Isuskiza Urzelaieta

ZINEGOTZI-GAIK:

2. Alberto Pikabea Lukanbio 3. Jesus Mari Bergara Almandoz 4. Jose Gabriel Larretxea Leiza 5. Julian de la Loma Barreales 6. Pablo Bergara Larretxea 7. Elena Isuskiza Iturria

Kadete taldea, hirugarren postuan sailkatu zen finalerako. Finalean, orde, dena eman zuten Arantzako gaztetxoek eta bigarren postua lortu zuten, Etxarri-Aranazko Andra Mari B taldearen ondok.

UEMA Eguna

Joan den igandean Zeaurin egin zen UEMA Eguna herriko au-

tobusa joan zen. Herriko Etxeak jarritako autobus honetan, hogeitahamar bat lagun joan ziren.

Aparkalekua

Lehen ere aipatutako aparkaleku berri hori egiteko dirulaguntza haundia jaso da eta laister hasiko dira lanean. Herriko bestetarako prest egotea espero da.

ANTZUZELA S.L.

Irungo errep. - BERA - Tel. 948-631317

HARRI NATURALA

ATERATZEA eta LANTZEA

Antzinaldeak	Tximiniak
Angeluak	Erfaizak
Orma antzinak	Moldurak
Leioak	Zokaloak
Ateak	Hilarriak
Arkuak	Marrakizak
Pilareak	

"Abujantxak" Muzioak
Zehar antzinak Txapela

ZINTARRIAK
ADOKINAK
ZOLAK

ALBERGEA
JATETXEA

© 948634179
ARANTZA

E D A R I A K

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa K / 82 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel. - Fax: 948. 63 10 27

DROGUERIA MOLINERO

• DROGERIA • LURRINDEGIA • OPARIAK •

2.000 kolore baino gehiago lortzen ahal duen makina
10 minututan zuk nahi duzun kolorea
Profesionalentzat prezio berezia

Eztegara 19 • © 948 63 02 40 • BERA



Ameriketan egondako sunbildarrek ohitura bihurtu dute maiatzaren bateko bazkaria eta ospakizuna.

Argazkia: Jesus Mari Jorajuriak utzia

Ameriketan egon diren sunbildarrek bazkaria egin zuten maiatzaren 1ean

Lur azpian egindako ogia jan zuten urtero bezala

JAIONE ETA ALBA

Orain dela hamabi urte hasi zuten ohiturari eutsi diote aurten ere Ameriketan egondako

sunbildarrek. Maiatzaren 1ean bildu ziren Ulibeltzak elkartean eta Fermin Zelaia eta Jose Mari Arretxea, Jesus Mari Jorajuria eta

Xantus Jorajuriak (hauek ere Ameriketan barna ibiliak) prestatu-tako menu goxoa -ilar gorriak, legatza errebo-zatua, solomilloa eta

HAUTESKUNDEAK

EA



Jose Maria Hernandorena Lastiri

ZINEGOTZI-GAIAK:

2. Jose Manuel Zugarramurdi Elizondo 3. Martin Irazoki Zubietza 4. Fco Zelaia Lastiri 5. Margarita Capdequi Aierza 6. Jose Martin Agirre Iriarte 7. Sagrario Imaz Migeltorena

EH



Pilar Korta Gandara

ZINEGOTZI-GAIAK:

2. Rakel Urtxegi Gelbenzu 3. Jose Migel Petirena Murugarren 4. Alba Fernandez Martinez 5. Faustino Mari-zkurrena Azpiroz 6. Juan Jorajuria Lastiri 7. Josune Otxandorena Andiarena

mazedonia - gustora aski jan zuten. Hogeita lau lagun bildu ziren aurtengo honetan, nahiz eta bazkari hau egun zuten lehendabiziko urtean, 1987an, 70 inguru izan. Erran behar da Jose Mari Arretxea «Itxegi»k, bertze urtetan bezala ogia egin zuela, lur azpian egindako ogia, hain xuxen. Arratsaldean akanpalekura igo

ziren guziak, eta eguerdian soberan geldituta-ko ogia eta gaztarekin ederki berendu zuten elkarri kontu kontari. Heldu den urtean ere berri-rik elkartuko dira.

Herriko sei gaztetxok lehendabiziko jaunartzea egin dute

Maiatzaren 9an, lehendabiziko jaunartzea egin zuten herriko sei neska-mutikok elizan. Eguraldi ederra ere laguniz zuten egun honetaz, familia eta lagunekin gozatzeko. Hauek izan dira aurten, komunioa lehen aldiz hartu duten neska-mutikoak: Itxaso Salas, Nekane Agirre, Josune Agirre, Sarai Arauzo, Xabier Espelosin eta Cristina Elizalde.



J. RAMOS
Zolak akutxilatuta eta barnizatzen dittut
☎ 948631342 BERA • ☎ 948637172 LESAKA



GAZTANDEGIA
LIZUN Etxeko Ardi Gazta
Petxenekoborda • Tfnoa: 948 450 862 • SUNBILLA



APARAN, S. A.
BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

Tel.: 948 450 133
948 451 541
Faxa: 948 450 334
DONEZTEBE

ETXANDI TXOKO jatetxea

Bazkari, afari eta gosariak

ITUREN
☎ 948 450 491



IRU BIDE
ERRETEGIA

Tfnoa: 948 637 127
LESAKA

DONEZTEBE

Mitxel Aginaga hirugarren Mendi Bizikleta ibilaldian

71 txirrindularik parte hartu dute

PATXI IRIARTE

Maiatzaren 8an burutu zen Irrintzi ostatuak lehen aldiz antolatutako Mendi Bizikleta Irekia. Lasterketa ikusgarria izan zen eta partehartzea ere haundia, lehen urtea dela kontuan hartuz: 71 txirrindulari, 40 senior mailan

eta 21 junior mailan. Oreretako Garikoitz Zapirain izan zen azkarrena, Iruñeko Roberto Valcarlos bigarren eta Narbarteko Mixel Aginaga hirugarren. Aipagarria izan zen Mitxelen lasterketa, espezialista bat izan gabe, kasik bigarren sartu baitzen. Nafarroako

mendi duatloi txapelketa irabazi du azken bi urtetan eta aurten Irabia taldearekin fitxatu du. Bertizarano Udalaren laguntza ere izanen du eta Nafarroako ez ezik, Espainiako txapelketan ere parte hartuko du aurten.

Mitxel Aginaga



HAUTESKUNDEAK

EA



Miguel San Miguel Azpiroz

ZINEGOTZI-GAIK:

2. Javier Elizalde Colau 3. Martin Arretxea Belarra 4. Juan Telletxea Urroz 5. Xabier Erasun Gragirena 6. M^a Mercedes Altzuri Bertiz 7. M^a Jose Rekarte Belarra 8. Jose M^a Erasun Erasun 9. Maria Belen Arregi Alberro

EH



Txema Aldabe Telletxea

ZINEGOTZI-GAIK:

2. Encarnacion Andueza Oskoz 3. Miguel Salaberri Elizetxe 4. Ainhoa Elizaga Mujika 5. Iñaki Lareo Oñartzabal 6. Esther Fernandez Casas 7. Martin Begino Garro 8. Jose Fernando Apeztegia Iturralde 9. Jose Maria Mikeo Zugarramurdi

Erreka eskubaloit taldea ez da ongi ibili aurten

Elkarteak hogeita bosgarren urtea bete du

Denboraldi honetako azken partidua jokatu du Erreka eskubaloit taldeak. Kopan bigarren sailkatu ondok, final laurdenetan erdian utzi zituen Burlata taldeak (30-15). Zenbait partidus-tekabeen galdu badiutze ere, ez dute denboraldi txarra egin. Bigarren Nazional mailari aisa eutsi diote, baina bertze urtetan igotzeko fasean sartzen direnez, aurten gutxi eago

egin dutela iduri du. Aurten 25 urte bete ditu Erreka elkarteak eta senior mailakoak aitzinean ibili ez badira ere, badira ospakizunerako arrazoiak. Adin ezberdinetako neska eta mutikoen taldeak lan haundia egiten ari dira, mendi eta txirrindularitza taldeak, pala eta krosaren antolaketak... inoiz baino biziago dago elkarteak eta orokorrean bai erraten ahal dela Errekaren ur-

te onena izan dela. Eta etorkizuna itxaropenez bete dator.

Udaberriko Feria

Maiatzaren 7an ospatu zen Donezteben Udaberriko Feria. Denetik egon zen azienak, lurraren produktuak... eta herriaren erdialdean giro polita sortu zen, baserriar aunitz etorri baitziren. Bisitariek goizaldeko ekaitzari umorez aitzin egin zioten.

FUNERARIA ZERBITZUAK Lesaka-Donztebe



MALDAERREKA, S.L.

24 orduetako zerbitzua Iruñea-Donostia-Irongo ospitaletatik edozein herritarra trasladoak Tfnoa: 948637404 • LESAKA Tfnoa: 948450475 • DONEZTEBE



BELARRA

OSTATUA - JATETXEA

Ameztiako korrika • DONEZTEBE Tfnoa: 948 450 306



AMEZTIA

Jatetxea - Hostala

Espezialitatea euskal sukaldaritzan eta pintxoetan

Tfnoa: 948 450 028 • DONEZTEBE

ttipi-ttapa

7.100 harpidedun 25.000 irakurle

Zure publizitatea etxe xoko guzietan

☎ 948 631188

MALERREKA-BERTIZARANA

Bigarren zerrenda aurkeztu da hainbat herritan

250 biztanle baina guttiagoko herrietan zerrenda irekiak bozkatuko dira

TTIPI-TTAPA

Ekainaren 13an zita berri bat izanen dahau-teskondeekin. Legasa, Narbarte eta Oieregin, lau hauteskontziedo urna izanen dituzte botua ematekoa: kontzejukoa, udalekoa, Nafarroakoa, Parla-mentukoa eta Euro-pakoa. Gainerakoe-tan, hiru. Udal hautes-kundeei dagokienez, Malerreka eta Bertiza-ranan talderen bat edo bertze gehiago aurkez-tu da. Honela, azken hauteskundeetan talde bakarra izaten zen

Saldias eta Elgorriagan. Orain, nahiz eta 250 biz-tanletara ailegatzan ez direnez, zerrenda ire-kiak izan, bina izanen dituzte aukeran. Donamaria, Ituren eta Bertizaranan ere bina izanen dituzte, aitzine-ko bozketan bezala. Beintza-Labaien, Eratsun, Ezkurra eta Urrotzen talde bakarra aurkeztu da. Eratsun eta Urrotzen zerrenda ire-kiak dira, beraz botu gehien jasotzen duen hautagaia izanen da al-kate. Oitzen, azkenik, ez da inor presentatu.



Legasa, Oieregi eta Narbarten lau urna izanen dituzte: kontzejukoa, udalekoa, Nafarroakoa eta Europakoa.

Saldias

CIS

1. Pedro Urrutia Grajirena
2. Sebastian Ezkurra Etxekolenea
3. Jose Ramon Etxeberria Benito
4. Jacinto Dominguez San Nazario
5. Julian Erasun Erasun

EH

1. Maite Mariezkurrena
Nuin
2. Jose Luis Mitxelena Petrikorena
3. Jose Ramon Otxandorena Aizega
4. Juan Jose Otxandorena Aizega
5. Ainhoa Elizalde Erasun

Urrotz

HA

1. Jose Luis Iribarren Etxegia
2. Jose Maria Iribarren Etxegia
3. M^a Jose Larraioz Ariztegi
4. Ignacio Urroz Gragirena
5. Juan Pedro Zozaia Goñi

Elgorriaga

Bostorraz

1. Jose Miguel Galarregi Apeztegia
2. Jose Ignacio Olazar Apeztegia
3. Fernando Martin Ibarra
4. Julian Irisarri Arrijuria
5. Jose Antonio Mariezkurrena Ibarra

EH

1. Francisco Javier Almandoz Larregi
2. Amaia Telletxea Inda
3. Jose Miguel Jorajuria Telletxea
4. Antonio Eizagirre Telletxea
5. Francisco Javier Jorajuria Telletxea

Eratsun

AE

1. Jose Luis Eskudero Bengoetxea
2. Jose Martin Retegi Deskarga
3. Julian Retegi Barberia
4. Martin Mariezkurrena Elizalde
5. Jesus Deskarga Bengoetxea

Ezkurra

Idoia

Martin Gastearena Balda

ZINEGOTZI-GAIK:

2. Peio Zestau Juantorena
3. Jesus Mariezkurrena Telletxea
4. Miguel Mari Lasarte Mariezkurrena
5. Jose Etxeberria Garciarena
6. Miguel Ignacio Mariezkurrena Saldias
7. Natividad Zabalo Juantorena

Donamaria

Herriko Taldea

Jose Maria Inda Etxandi

ZINEGOTZI-GAIK:

2. Onofre Migeltorena Gamio
3. Julian Mariñelarena Garralda
4. Celestino Sagardia Lazkano
5. Francisco Juanena Leonis
6. Severo Iribarren Juanena
7. Bernardo Urroz Mariezkurrena

Herriarengatik



Ricardo Sagaseta Andiarrena

ZINEGOTZI-GAIK:

2. Santiago Jorajuria Mitxel-torena
3. Angel M^a Larra-buru Calzado
4. Jose Mi-guel Lasaga Telletxea
5. Fco Javier Mitxeltorena Juanena
6. Santiago Itur-ralde Migeltorena
7. Jose Javier Otxandorena Lasaga

Zubieta

EH



Benantzio Baleztena Santesteban

ZINEGOTZI-GAIK:

2. Ezekiel Loiar-te Santesteban
3. Jasone Astibia Le-gorburu
4. Fco Javier San-teresteban Loiar-te
5. Mar-celino Santesteban Elizalde
6. Valentin Santesteban Es-kudero
7. Martin Lorenzo Santesteban Loperena

Beintza-Labaien

Herriko Taldea



Francisco Javier Bertiz Erasun

ZINEGOTZI-GAIK:

2. Eustakio Bengoetxea Urroz
3. Jose Martin Mindegia Labaien
4. Juan Urrutia Ezkurra
5. Miguel Telletxea Erasun
6. Miguel Erasun Zozaia
7. Miguel Saldias Erasun



izarte aiak

Leitzaldetako Gizarte Zerbitzuaren argitalpena
1. zenbakia • 1999-V-20

Hemendik
aurrera, hiru
hilabete behin,
Gizarte Zerbitzuak
tartetxo hau erabiliko
du herriarentzat
garrantzitsuak
iruditzen zaizkion
informazio
ezberdinak
kaleratzeko.

HISTORIA

Alkohola da Euskal Herrian drogamenpekotasun arazo nagusia, bihotzeko gaitasunaren eta minbiziaren ondotik.


Droga kontsumoa ez da oraingo kontua, antzinakoa baizik. Kontsumo hori hainbat eta hainbat faktorek baldintzatzen dute, gizartearen bilakaera historikoari, kultura desberdinei eta dagozkien baloreei lotutako faktoreek hain zuzen. Drogak betidanik egon dira, aldatu dena haxe izan da: kontsumoaren arrazoiak, aldia eta modua.

Gobernugehiaren politika ez da debekatzea izan, baizik eta arriskuak murriztea eta kontsumoa kontrolatzea. Salbuespen batzuk egon dira, adibidez:

- EEBBetan, XX. mendearen hasieran (1920an), alkohola debekatu zuten, "Lege Lehorra" jarritz. Honen ondorioz produkzioa, salmenta eta kontsumoa ilegalak bihurtu ziren. Hamahiru urte beranduago legea kendu behar izan zuten, hurrengo arrazoi hauengatik:

- Produkzio eta salmenta klandestinoa handitu zelako.
- Krimen antolatua eta korrupzioa haunditu zirelako,

Alkoholola



hau da, mafiak sortu ziren honen inguruan.

Gaur egun, EEBBetan, 21 urte baino gutxiagokoei al-

koholasaltzea debekatuta dago.

- Herri musulmanek alko-

holola debekatu dute, beraien erlijioak debekatzen duelako.

Gaur egun, gure gizarteak alkohola droga sozialtzat dauka, hau da, alkohola gure gizarteak onartzen duen droga bat da. Nahiz eta onartua egon, bereiz-

keta bat egiten da:

- Neurri gabeko kontsumoa (onartua ez dagoena).
- Neurriko kontsumoa (onartua dagoena).

MOTAK

Alkohola hiru talderan bana dezakegu:

1- Ardoa (mahatsa,... fermentatuz lortzen dena), %10-14 Alkohola dute.

2- Zerbeza (zerealak fermentatuz lortzen dena), %3-6 Alkohola dute

3- Likoreak (destilazioa ditutako prozesu baten bi-

tartez graduazio handiagoa lortuz egiten den edaria). Whisky, Vodka, Ginebra,... %30-50 Alkohola dute.



Kontsumo mota

Alkohola hartzen dugunean, %20a gure urdailak xurgatzen du eta %80a gure hesteek. Hortik odolera pasatzen da eta honek gorputz guztira zabalduko du. Garunera iristean eragin ezberdinak sortzen hasiko dira:

Adibidez: 0,1 edo 0,3 ko alkoholemia tasa batekin gidatuz gero, frenatzeko beharko dugundenbora handiago izanenda,

hau da: 0,9 eta 1,8 metro gehiago beharko ditugu 48 km/orduko abiaduran bagoaz; 1,5 eta 3 metro gehiago 80 km/orduko abiaduran eta 2,1 eta 4,2 metro gehiago 112km/ordukoan.

Gure gibela izaten da alkohola kanporatzeaz arduratzen dena. Hau dela eta gibelaren gaixotzea, "Zirrosia", pertsona alkoholikoetan.

FETUAREN ALKOHOL SINDROMEA

Haurdun dagoen emakume batek alkohola edaten badu, haurra, sindrome honekin jaio daiteke (atzerapen mentala, ezbehar fisikoekin,...), beraz, Haurdunaldian ez da komeni edatea.

Arriskuak

• NORBERAREN OSASUNERAKO

- Arazoak liseri-aparatuan (ultzerak, hepatitis, zirrosia)
- Bihotzeko gaixotasunak
- Elikadura desegokia, anemia
- Izaera aldaketa
- Arazo psikologikoak
- Gaitasun intelektualen beherakada
- Menpekotasuna

• FAMILIARENTZAT

- Interesik eza, senideen urruntzea
- Eztabaidak eta iskanbilak
- Familiaren banaketa

• LANTOKIAN

- Errendimenduen jeitsiera
- Absentismoa
 - Laneko bajak
 - Lanerako gaitasunik eza

• GIZARTE MAILAN

- Trafiko istripuak
- Eztabaida eta iskanbila publikoak
- Delituak

• OSASUN ZERBITZUAK

- Eritetxean egon beharrak eta gaisotasunek eragindako gastu izugarriak
- Heriotza



Alkoholak gibelesko gaixotasun larriak eragin ditzake, zirrosia eta minbizia, besteak beste. Gibel hauetatik zein iruditzen zaizu gaixorik dagoela?



Trafiko istripu asko alkoholaren eraginez gertatzen dira.



Nor da alkoholikoa?

Alkohola neurri batean, hau da pixka bat, edateak ez du esan nahi pertsona bat alkohol zalea denik. Baina, denbora luzez eta gehiegikeriaz edateak alkoholzaletasunera eramanezake pertsona. Beraz, alkoholaren menpe dagoen pertsona da alkoholikoa, hau da, bere eguneroko bizitzan alkohola behar duena.

Askotan, pertsona alkoholiko batez daukagun irudia hurrengo hau izaten da:

- Lanik, familiarik, ... ez duena, kalean bizi dena, pertsona heldua,...

Baina irudi hau ez dator bat errealitatearekin eta, gehienetan, pertsona hauek, gaur egun, lana eta familia dute eta gazte alkoholiko kopuru haunditzen ari da.

Zer da alkoholismoa?

EZ da bizio bat, gaixotasun bat baizik. Gaixotasun fisiko eta mentala da, nahiz eta lehenengo bistan, pertsona **NORMALA** iruditu.

Kasu batzuetan, alkoholikoak, nahiz eta alkohola utzea erabaki, ezingo du bere kabuz alkohola utzi, Delirium Tremens-a jasaten duelako, (sukarra, aluzinazioak, delirioak, nerbioak,...). Horregatik, mediku edo espezialista baten laguntza beharko du.



Alkohola eta gidatzea

Alkoholaren eta trafiko istripuen artean dagoen lotura ikusita, legeak agintzen duenez, ezin dugu gidatu alkohol kantitate jakin bat hartu ondoren.

Legea betetzeko alkoholemia kontrola egiten da. Froga honek, gure organismoan dagoen alkohol kantitatea kalkulatu du, hau da, alkoholemia. Alkoholemia, normalean, alkoholimetroaren bidez neurtzen da. Honek odol litro batean dagoen alkohol gramoak neurtzen ditu.

ONARTUTAKO ALKOHOLEMIA TASA BERRIAK 0,8tik 0,5 era alda-

tu dira (1999ko, maiatzaren 6a geroztik)

Kotxe normala:

Lehen, 0,8 Orain, 0,5gr/l

Merkantzia garraioetan:

Lehen, 0,5 Orain, 0,3gr/l

Bidaiari garraioetan eta garraio berezietan:

Lehen, 0,3 eta Orain 0,3gr/l



Adibidez: Aurrerantzean, nahikoa izango da bi baso ardo, edo hiru garagardo edo kubata bat hartzea alkoholemia frogan positibo emateko.

Pertsona baten pisua, alkohola edan duenetik igarotzen denbora eta hartutako edari kopurua kontuan hartuta, honako alkoholemia emango lioke:

	DENBORA	KONTSUMITUTAKOAK	
		2 kopa / 2 garagardo	3 kopa / 3 garagardo
GIZONEZKOA 70 kg	30 minutu	0,6	0,8
	Ordu 1	0,5	0,7
	2 Ordu	0,4	0,6
EMAKUMEZKOA 55 kg	30 minutu	0,5	1,0
	Ordu 1	0,4	0,9
	2 Ordu	0,3	0,8

Legeak zer dio?

- Behartuta gaude, agenteek horrela eskatzen badigute, alkoholemia frogagaitera. Ukatuz gero, arau-hauste larritzat hartzen dute, 100.000 pta-ko multa jartzen ahal digute eta 6 hilabetetarako gidatzeko karneta kendu. Sei hilabete eta urte bateko kartzela zigorra ere jarri dezakete.

- Alkoholemia frogak positibo emanez gero, edo pertsonak alkohola hartu duen sintomak baldin baditu (nahiz eta frogaren emaitza legeak ezarritako limiteetara ez iritsi), agenteak, emaitza egiaztatzeko, bigarren frogabatek egitera behartu gaitzake.

- 0,5gr/litroko alkoholemia batekin istripu bat izanez gero, aseguru etxeak, ez daude behartuta istripuaren kar-

gu egitera.

- Alkoholaren menpe gidatzeagatik, bi motako isunak jarri diezazkigukete:

- Administratiboa: arau-haustea, hiru eratakoa izan daiteke: arina, 15.000 pta-ko isuna jarri diezazkigukete; larria, 50.000 pta-ko zigorra jarri diezazkigukete eta oso larria, 100.000 pta-ko zigorra jarri diezazkigukete. Isun hauek, bi eta hiru hilabeterako karneta kentzearekin zigortu ditzakete.

- Penala: zigor hau, gramo 1/litroko alkoholemia ematen dutenei ezartzen zaio. Zortzi eta hamabi aste buruko kartzela zigorrarekin eta urte batetik lau urte bitarteko gidatzeko karneta kentzearekin zigortu daiteke.



Mitoak apurtuz

1- Gazteek pertsona helduek baino errazago garatu dezakete menpekotasuna.

EGIA. Era guztietako aldaketak ematen diren garaia da gaztetasuna edo nerabezaroa, segurtasun eza ematen da eta gerta daiteke drogak lagungarri (makulu) bihurtzea bere arazoei edo ezinegonei aurre egiteko. Honen ondorioa, menpekotasuna garatzea izango da.

2- Alkoholak lotsak arintzen ditu.

EGIA. Alkoholaren eraginetako bat, larritasuna arintzea edo murriztea da eta lasaitasuna haundiagoa ematea. Inhibizio eta urduritasunak baztertzen ditu. Hala ere, aldi baterako hobekuntza baino ez da eta alkoholaren eraginekin batera desagertu egiten da.

3- Alkohol kantitate haundiak azkar edateak KOMA eragin dezake.

EGIA. Epe labur batean alkohol kantitate haundiegia hartzeak edo edateak koma bera edo heriotza ere ekar lezake. Zergatik gertatu daiteke hau? Alkoholak, burmuinari eta bizkarmuinari eragiten dielako, beraien funtzionamendua motelduz. Dosi edo kantitate haundiegia burmuinari arnasketa kontrolatzea era-

gozten dio. Honen ondorioz, koma edo heriotza eman daiteke.

4- Hiru alkohol kontsumizio edateak ez du gidatzeko gaitasuna murrizten.

GEZURRA. Nahiz eta guk ez nabaritu, alkoholak, erreflexuak murrizten ditu eta arriskuak objektiboki ez baloratzea lortzen du. Araua: ordubete itxaron behar duzu edan duzun unitate bakoitzarengatik.

5- Alkoholimetroa, trikimailu ezberdinak erabiliz engainatu dezakegu.

GEZURRA. Alkoholimetroak, alkoholemia neurtzen duelako eta hau ezin daezerrekin murriztu (denborarekin izan ezik).

6- Mozkorraldiak oso arin pasatzen dira kafea edanez edo dutxa hotz bat hartuz.

GEZURRA. Denbora baino ez da konponbide egokia odoleko alkohol kopurua murrizteko. Ez dago inolako sistemarik alkoholemia murriztea arintzeko edo azkartzeko. Edateari utziz, gibelak odolean izan dezakegun alkohola orduko unitate bat murriztu dezake. Unitate bat kaina bat garagardo izan daiteke (170 zk) edo edalontzi bat ardo (60 zk).

7- Alkohola estimulantea da.

GEZURRA. Alkohola Nerbio Sistema Nagusiaren ahulgaria da. Inhibizioa murrizten du eta burmuinaren funtzionamendua moteltzen du. Hasiera batean baikortasuna pizten du, baina hori aldi baterako baino ez da.

8- Hamasei urte baino gutxiago duten gazteei alkohola saltzea onartua dago.

GEZURRA. Kode penalak 16 urte baino gutxiago duten pertsonen publiko diren tokietan alkohola saltzea debekatu egiten du. Mugatze hori, alkoholdun edariak saltzen dituzten pertsona helduei zuzendutakoa da. Hainbat Komunitate Autonomotan 18 urte arte luzatzen da debeku hau. Gaur egun administrazio arautegia da, gai hau arautzen duena. Herri Segurtasunaren Legea aipatu egiten du «debekatua dagoenean toki publikoetan edo ikuskizunetarako tokietan adin txikiko pertsonak onartzea eta beraiei alkoholdun edariak saltzea edo zerbitzea» eta 50.000 pezetakoak ere izan daitezkeen zigorrak jartzen ditu. Zigor horiek larritu edo haunditu egin daitezke larrik berriro ere gauza bera gertatuko balitz.

BERTIZARANA

53 milioi pezeta gosta den Legasako pilotalekuaren lanak laister akituko dituzte

Bertizaranako lehendabiziko pilota plaza estalia da

TTIPI-TTAPA

Aurtengo udan pilotaleku berria izanen du te legasarrak, garai batean Bidasoako Trenaren geltokia zegoen tokiaren inguruan. Ez da segurua hauteskunde aitzinetik edo ondotik irekiko ote den pilotalekua, baina herriko bes-tetarako inauguratua egonen da seguruenik. Obrak arras antzinduak daudezi dagoeneko, baren aldean azken ukituak egitea bakarrik falta da, pintatu eta sareak paratzea adibidez.

Bertizaranan egiten den lehendabiziko pilotaleku estalia izanen da hau, eta ikusten ahal denez ez du ohiko frontoien itxura. Proiektua egin zuen arkitektuak, Xabier Lopezek, Acera-



Migel Andresena Legasako alkatea, pilotalekuaren aitzinean. Arg.: Asier

lia fabrikako pabiloietan inspiraturik eman zion frontoiari forma borobil hori. Egia erran, herrian gisa guzietako iritzi eta komentarioak aditu dira frontoi be-

riaren inguruan: batzuentzat arras polita da diferentea izanik ere, baina bertze batzuei, berriaz, itsusia iduritzen omen zaie. Halere, Legasako herritar gu-

ziaz ados daude gauza batean: herrian horrelako idorpe bat behar-beharrezkoa zen aspalditik, euria egiten duenean ez baita kirola egiteko toki egokirik.

Pilotaleku berriak 36 metroko luzera du, eta 15 metro terdiko zabalera. Teilatua, berriaz, lurretik 13 metrora dago punturik altuenean. 53 milioiko gastua egiten da.

500 milioiko inbertsioa eginen du Aceraliak Legasako lantegian

Gaur egungo lantegiaren ondoan, 2.400 metro koadroko planta berria eginen du Aceraliak Legasan, 500 milioi pezetako inbertsioarekin. Orain arte, pintatutako txapa Legasatik bobinatan ateratzen zen. Lantegi berri honetan, bobinak bezeroek nahi duten neurrirako moztuko dira. Saltzen den produktuaren kalidadea segurtatzeko lerro bat ere paratuko da.

ITUREN

Herri lurrei buruzko ikerketa egiteko bi milioiko aurrekontua

Iturengokomunalak edo herri lurrei buruzko ikerketa lana egiteko 2 milioi pezetako aurrekontua duen proiektua aurkeztu du Udalak. Honela, herri lurra eta partikularrak mugatu nahi dira eta guzira, 400 bat lur sail aztertuko dira. Lana egiteko proposamenak maiatzaren 20a baino lehen aurkeztu behar dira.

Ituren

EA



Jose Maria Gorosterrazu Elizalde

ZINEGOTZI-GAIK:

2. Miguel Angel Petrarena Azpiazu 3. Marcelino Bazterrika Altxu 4. Fermin Elizalde Azpiroz 5. Eusebio Elizalde Mariezkurrena 6. Trinidad Erasun Ariztegi 7. Josefa Goñi Aizkorbe

EH



Maria Jose Bereau Baleztana

ZINEGOTZI-GAIK:

2. Belen Azpiroz Bazterrika 3. Jose Antonio Altxu Juanikorena 4. Fco Javier Bereau Mikelarena 5. Teresa Mikelarena Telletxea 6. Ernesto Ariztegi Etxepetleku 7. Juan Manuel Mariezkurrena Elizalde

Bertizarana

AEB



Esperanza Urdanabia Lasaga

ZINEGOTZI-GAIK:

2. Juan Jose Oteiza Sarratea 3. Juana Mari Indart Sarratea 4. Alejo Mindegia Mindegia 5. Jose Migel Arretxea Agirre 6. Marino Elizondo Iriberrri 7. Eva Maria Aldabe Portu

BE



Andres Etxenike Iriarte

ZINEGOTZI-GAIK:

2. Luis Urriza Larrea 3. Antonio Hernandezena Etxepare 4. Jose Antonio Braña Inda 5. Fernando Trueba Diez 6. Martin Iriberrri Ariztegi 7. Alfredo Iriarte Arretxea

GOIZUETA-ARANO

Euskal Herritarrok Goizuetan, eta Aranon inor ere ez

Mendi bizikleta ibilaldia maiatzaren 30ean burutuko da

ESTEBAN AROZENA

Ekainaren 13an ospatuko diren udal hauteskundetan ez dute zailtza egon beharrik izanen gure bi herrietako hautesleek, Goizuetan zerrenda bat bakarrik edukiko baitute aukerareta Aranon berriz, alerik ez.

EHko siglapean agertzen diren hamar herritarrek gobernatuko dute udaltxea hurrengo lau urteetan, ezker abertzaleko talde hau bakarria izan baita horretarako irekitako epearen barnean izena eman duena. Azken legegialdian alkate izan dena agertzen da, berriz ere, zerrendaburu, Pili Untxalo, alegia. Beste

sei «titularrak», berriz, Laxaro Apezetxea, Joakin Loiarde eta Fermin Narbarte beterranoak, eta Ibon Elizegi, Dani Narbarte eta Idoia Albistur gazteak dira. Xebe Apezetxeak, Mari Jose Aizpuruk eta Juan Antonio Lekuonak betetzen dituzte ordezkoen hiru postuak.

Orain dela lau urte gertatutakoaren antzera, Aranon ez da inor aurkeztu lehenengoepe honen barnean. Hurrengo urrira arte zain egon beharko da herri horretako udal hauteskundetan botoa eman ahal izanen duten jakiteko.

Mendi bizikleta eta bodegara bisita

Umore Ona elkarte-

ak bi ekitaldi interesgarri antolatu ditu udaberri honetarako. Hurrengo igandean zortzi, maiatzak 30, urteroko mendi-bizikleta ibilaldia burutuko da, ibilbide berriarekin eta herriarren partaidetza bultzatzeko eragingarri askorekin gainera aurtengo edizioan. Ekainaren 5ean berriz, Añorbe bodegatar joateko proposamena luzatu dute. Han gosalduta eta ardoaren prozesua ikusi eta ikasitakoan, Barasoaingo elkartearen bazkalduko dute. Izena emateko zerrenda zabalik da go Urrutian,



Ezker abertzaleak gobernatuko du udala beste lau urtez

maiatzaren 30a arte. Elkarteko bazkideek 2.500 pezeta ordaindu beharko dute eta bazkide ez direnek, 3.000 pezeta.

Herri arteko pilota txapelketa abiatzen da goizuetarrentzat

Aurtengo Nafarroa-

EH



M^a Pilar Untxalo Salaberria

ZINEGOTZI-GAIK:
 2. Lazaro Apezetxea Perurena 3. Fermin Narbarte Loiarde 4. Joaquin Loiarde Iribarren 5. Ibon Elizegi Narbarte 6. Daniel Narbarte Apezetxea 7. Idoia Albistur Huizi.

ko Herri arteko txapelketari, maiatzaren 30ean emanen diote hasiera gure herriko pilotariet.

Atzetik datorren Barañain izanen dute, seguraski, arerio. Kanporaketa hau gaitzen duenak Burlataren kontra jokatu beharko du hurrengoan.

ARESO

Erromeria Santa Kruzeko baselizara

Pakearen aldeko gurutze-bidea egin zen maiatzaren 2an

JUANA M^a SAIZAR

Maiatzaren 2an, Santa Kruzeko baselizara erromeria egin zen. Herriko elizatik atera eta gurutze-bide berezia egin zen aurtun, pakearen aldekoa. Ordubeteko ibilaldia egin zen, meza entzun aurretik. Eta maiatzean gaudenez, Amabirjinari loreak eskaini zizkioten herriko lauskerak. Ohiturari ja-

rraituz, gazta, ogia eta ardoa dastatu zuten han bildutakoek.

Objetorea herri lanetan

Joan den urteko uztailan egin zen batzarrean herriko kontzientzia eragotzle lana ematea onartu zuten, beti ere inori lanposturik kendu gabe. Hau aprobetxatuz, Mikel Zabaleta lanean ari da, oraingoz

udaleko paperak txukuntzen.

Erizainaren ordutegia

Gurutze erizaina, hilean behin etorriko da Osaun Etxera, hilabeterako azken ostiralean, 12etatik 1etara.

Larrea elkarteak hamahiru urte

Larrea elkarteak hamahirugarren urtemu-

GIA



Josefa Antonia Onsalo Treku

ZINEGOTZI-GAIK:
 2. Milagros Oreja Arraigo 3. Miguel Zabaleta Caballero 4. Juana Arribillaga Sasiain 5. Luis Mari Gereño Marzol 6. Margarita Caballero Otaegi 7. Juan Bautista Jauregi Sukunza

EH



Julio Nieto Baranda

ZINEGOTZI-GAIK:
 2. Tomas Lozano Barrios 3. Josefa Marzol Tolosa 4. Jose Etxarri Mujika 5. Jose Otermin Etxarri 6. Ignacio Baraibar Garmendia 7. Txomin Etxarri Mujika

ga ospatuko du ekainaren 6an bazkari batekin. Bazkide guztiak gonbidatuak daude ospakizun

honetara eta bazkarirako izena emateko epea maiatzaren 30ean bukatuko da.

Ekitaldiz gainezka dator XXI. Kultur Astea

Igande honetan Nafarron
Eguna ospatuko da

JOSEBA AZPIROZ

Asteburu honetan ha-
ste, egunero-egunero eki-
taldiren bat prestatu du
Kultur Taldeak, XXI.
Kultur Astearen barre-
nean.

Hasteko, larunbat ho-
netan, maiatzak 22, goi-
zeko 10etan mendi ir-
teera egingen da umee-
kin, plazatik abiatuta.
Arratsaldeko 5etan mu-
sika ikasleek kontzer-
tua eskainiko dute zi-
neman.

Igandea, maiatzak
23, egun berezia izanen
da, Nafarron Eguna os-

patuko baita. Goizeko
9,30etan bost txalapar-
ta talde herri inguruko
mendietatik ariko dira.
Ordu berean diana iza-
nen da auzoz auzo, txis-
tulari eta gaiteroekin.
10,30etan ongi etorri
ekitaldia egingen da pla-
zaneta gero, kalejira he-
rriaren barrena. Kalejira
honetan Baigorriko
Arrola dantza taldeak,
Leitzako dantzariak eta
Amikuzeko joaldunek
hartuko dute parte.
Eguerdian jaialdia egi-
nen da plazan: bertso-
lariak, dantzariak, pilo-
ta partiduak... 2,30etan
herri bazkaria izanen da



Leitzako Kultur Taldeak hamaika ekitaldi antolatu ditu datorren Kultur
Asterako. Aspertzen denak ez du aitzakirik!
Argazkia: David Anaut

eta bazkalondan, Ma-
gali eta Guy kantariak,
bertsolariak, eta Mutxi-
koak eta Inguruxoa he-
rri dantzak entzun eta
ikusitako izanen dira.

Dokumental, antzeslan, hitzaldiak...

Astehenean, maia-

tzak 24, arratseko 8etan,
«Mali, eguzki eta lan-
broa» dokumentalaren
proiektzioa emanen du
Luixi Katarainek.

Asteartean, 8etan,
Hika taldearen «arraul-
tza delikatuak» antzes-
lana ikusgai izanen da
Aurreran.

Asteazkenean, leku
eta ordu berean, Jean
Louis Davant-ek «Eus-
kal Herriko historia,
Iparraldeko ikuspegi-
tik» izeneko solasaldia
emanen du.

Ostegunean, 8etan,
Kurdistan buruzko bi-
deoak eta hitzaldia iza-
nen da zineman.

Ostiralean, maiatzak
28, arratsaldeko 3etan
kale animazioa jarriko
du Goloka Park-ek.
5etan txokolate hartzea
izanen da plazan eta
gaueko 10etan, «Tirri
tarra show» musika eta
antzerki emanaldia zi-
neman.

Maiatzeko azken as-
teburuan ere hainbateki-
taldi pilatuko dira.
Larunbatean, goizeko
10etan, herriko txoko-
ak margotuko dira, ba-
koitzak nahi duen ma-
terial eta teknikaz.
Arratsaldeko 5etan, ko-

adrila arteko bigarren
jokoak burutuko dira.
Gaueko 9etan herri apa-
ria izanen da eta ondo-
ren, Iraunkorrek txar-
rangak giroa koditu he-
rriko bazter guztiak.

XIX. eskulangintza erakusketa

Igandean, maiatzak
30, hemeretzigarren ur-
tez eskulangintza era-
kusketa izanen da pla-
zan, goizeko 11etatik
aurrera. 11,30etan
Incansables txaranga-
rekin kalejiratxo egi-
nen da eta ordu erdi be-
randuago, txaranga be-
rak kontzertua eskaini-
ko du plazan.

Eraberean, aipaga-
ria da aste osoan zehar
zenbait erakusketa egi-
nen direla. Honela, uda-
letzeko areto nagusian,
Orreaga taldeak prestatu
duen «Nafarroaren
historia» erakusketa
egonen da. Udaletzeko
lehenengo solairuan
Andraizeko panelak iza-
nen dira ikusgai eta
Guratz mendi elkarte-
an eta Aurreran, beste-
lako erakusketak: koa-
droak, eskulturak, oiha-
lak... Bada zertan aritu
heldu den aste honetan!

HAUTESKUNDEAK

EH



**Tomas
Azpiroz
Alkoz**

ZINEGOTZI-GAIK:

2. Juan Bixente Usabiaga
Arregi 3. Elena Zabaleta
Urkiola 4. Jaione Astibia
Astibia 5. Maite Sarobe Mi-
txelena 6. Jose M^a Ignacio
Azpiroz Lasarte 7. Jose Ja-
vier Sestorain Zabaleta 8.
M^a Carmen Huarte Azpi-
roz 9. Jose Fermin Varriola
Aierdi 10. Florencio Etxarri
Caballero 11. Amaia Ape-
zetxea Salaberria

EA



**Juan
Oronoz
Zabaleta**

ZINEGOTZI-GAIK:

2. Arantxa Sagastibeltza
Sagastibeltza 3. Jose Fer-
nando Garcia Daudet 4.
Juan Jose Lazkano Gomez
5. Brigid Azpiroz Sarasola
6. Luciano Olano Villabona
7. Iñaki Sagastibeltza Az-
piroz 8. Jesus Perurena
Loiarte 9. Luis Mari Fa-
goaga Garcia 10. Florencio
Huarte Lizarraga 11. Mari
Carmen Agirre Zubitur

UPN



**Jose Javier
Mujika
Astibia**

ZINEGOTZI-GAIK:

2. Flora Mitxelena Sagas-
tibeltza 3. Gerardo Caba-
llero Azpiroz 4. Miguel An-
gel Ariztimuño Kanflanka
5. Silvestre Zubitur Goñi
6. Jose Mari Perurena
Sukunza 7. Fermin Azpiroz
Martinikorena 8. Daniel
Mujika Zubeldia 9. Pedro
Urkiola Zestau 10. Juan
Lana Guenbe 11. Juana
Sagastibeltza Zabaleta

BAZTAN

Hiru talde bertzerik ez dira aurkeztuko udal hauteskundetan

Agrupacion Baztandarra eta PSOE ez dira azalduko aurten

TTIPI-TTAPA -

Bi talde gutiago izanen ditu aukeran ekainaren 13an udal hauteskundetarako bozka ematera gaten denak. EA, UPN eta EHk aurkeztu dute beraien zerrenda hauteskunde hauetarako. Beraz, PSOE eta Meoki zenaren Agrupacion Baztandarra taldeak ez dira aurten agertuko.

Hautagaiak aurkeztu duten taldeen artean, Eusko Alkartasunak gaur egun alkate den Patxi Oartzabal hartu du oraingoan ere alkategai gisara. Zerrendaren lehendabiziko lekuetan ere, azken legegaldian zinegotziak izan direnak ageri dira EAren listan.

UPNk alkategai berria izanen du aurten goan, Leopoldo Jaen, hain xuxen. Aitzineko aldian zerrendaburu zen Felix Gonzalez bosgarren lekuan dago.

Azkenik, Mikel Altzuart izanen da EHko alkategaia. Aitzineko legegaldian HBko zerrendaburu zen Xotero

Etxandi laugarren lekuan dago. EHren zerrendan aipagarria da emakumeen presentzia, hamahiru hautagaietatik sei emakumeak baitira.



Balleko Etxeko hamahiru aulkiak bozkatuko dira ekainaren 13an. Hauteskunde hauetan hiru talde bertzerik ez dira aurkeztuko: EA, UPN eta EH.

Artxibokoa

HAUTESKUNDEAK

EA



Patxi Oartzabal Irigoien

ZINEGOTZI-GAIK:

2. Miguel Angel Adin Franesena 3. Remigio Lizasoain Adansa 4. M^a Cristina Arregi Apeztegia 5. Rafael Olaiola Amorena 6. Luis Arregi Etxepare 7. Pedro M^a Gamio Gamio Gaztelu 8. M^a Teresa Bardot Juantorena 9. Jose Larratxea Etxenike 10. Florentino Goñi Telletxea 11. J. Bautista Arretxea Etxeberria 12. Bernardo Amiano Magirena 13. Juana M^a Barberena Arsuaga

UPN



Leopoldo Jaen Sobrino

ZINEGOTZI-GAIK:

2. Jose Fco Bergara Sanzberro 3. Ignacio Agerrea Almenar 4. Antonio Irigoien Sarratea 5. Felix Gonzalez Uriarte 6. Pedro Antonio Zapata Zaldua 7. Juan Jose Etxeberria Azkarraga 8. Fco Javier Bengoetxea Felipe 9. Begoña Sanzberro Iturriria 10. Felix Larregi Irigoien 11. Tiburcio Sarratea Etxenike 12. Juan Bautista Oteiza Indakoetxea 13. Pedro Larregi Sanzberro

EH



Mikel Altzuart Etxandi

ZINEGOTZI-GAIK:

2. Txus Barrenetxe Lertxundi 3. Xabi Ballarena Iturburu 4. Xotero Etxandi Juanikotena 5. Maite Irungarai Elizalde 6. Andone Garde Saharrea 7. Isaak Rekalde Irigoien 8. Maitel Iturburu Etxandi 9. Joseba Otondo Bikondo 10. Jorge Oteiza Ugarte 11. Begoña Etxandi Juanikotena 12. Marian Karrikaburu Zaldua 13. Iñigo Iturralde Elizetxe



Iruritako eskolako

neska-mutikoei Zaldiko Maldiko izeneko aldizkaria karrikatu dute. 28 orrialdetan, erreportaria, elkarriketa, herriko berriak eta berte hainbat kontu eskaintzen dituzte kazetari gaztetxo hauek.

Benito Lertxundiren kontzertua

Heldu den larunbatean, maiatzak 29, gaueko 10,30etatik aitzina, Benito Lertxundik kontzertua eskainiko du Elizondoko pilotalekuan. Ekitaldia Euskal Herrian Euskaraz erakundeak antolatu du.

ARROPA DENDA



Gazteendako era guzietako arropa

Lanerako arropa



Gierresenea

OSTATU - JATETXEA

Jaki Tipikoak • Etxeko Girona

Iturriotz Auzoa • © 592043 • ORONOZ-MUGAIRI

BAZTAN

Berroetako Mendekoste bestak maiatzaren 21etik 24ra

Astelehenean ezkondu eta ezkongabeen arteko sokatira desafioa

Ortzilerie, maiatzak 21:

8,30etan altxaferoak botako dira beste hasiera emanez. Ondotik, Doneztebeko txistulariak herrian barna. 10etan herri afaria, Joxe Angel akordeolariak alaiturik.

Larunbata, maiatzak 22:

12etan haurrendako jokak. Arratsaldean eta gaur dantzaldia MEDIA LUNA taldearekin.

Igandea, maiatzak 23:

12etan Meza Nagusia. Elizondoko koralak hainbat kantu eskainiko ditu. Ondotik, hameketako hurbiltzen diren guzientako, txistulariek alaiturik. 1etan esku pilota partidak. Haurretan: Otxandorena-Irazola, Fernandez-Garmendiaren aurka. Gazteetan: Eraso-Arraztoa, Ibarra-Altzugarainen aurka. 7etan herrikirol jaialdia (aizkora, txingak...).



Elizondoko koralak abestuko du igandeko mezan

8etatik 11 tara Mundiñano anaiak trikitilarien emanaldia. Ekitaldi honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du.

Astelehena, maiatzak 24:

12etan Mus txapelketa. 2etan zikiro jatea, Joxe Angel akordeolariak alaiturik. 7etan sokatira desafioa: ezkonduak ezkongabeen aurka. 7,30etan futbito partidua. 8etatik aintzineran dantzaldia Joxe Angel akordeolariarekin, honekin batera beste akabailek emanez.

been aurka. 7,30etan futbito partidua. 8etatik aintzineran dantzaldia Joxe Angel akordeolariarekin, honekin batera beste akabailek emanez.

Konpromezu Egune Baztan eta Zugarramurdin

Maiatzaren 7an, presoen eskubideen aldeko konpromezu egunaren barnean hainbat ekitaldi egin ziren Baztan eta Zugarramurdin. Baztanen, goizean Lanbide Eskolan eta Lekarozko Institutuan dispersioaren eraginari buruzko bi-

deoak eman zituzten. Elizondon, HBK antolatutako proiektzioa egin zen eta, ondotik, Gazte Asanbladak ostatzat ostatu orri informatiboak banatu zituen, trikitixaren laguntzaz. Herri guzietan, kartzeletan eskuaren erabilpenari jartzen zaizkion zotoak salatuz, kartelak jarri zituzten Doike, Euskal Herrian

Euskaraz eta AEKk. Xorroxinek programazio berezia eman zuen eta Udaletxeko balkoian pankarta ezarri zen. Zenbait elizetan ere, informazio-orriak jarri zituzten.

Zugarramurdin, Kisulabe elkarteak bideo emanaldia eta Josu Unson Berako preso ohiaren solasaldia antolatu zuen.

flash

Publizitatea El Mundo egunkarian

Balleko Udalak 121.800 pezetako publizitatea sartu du El Mundo egunkarian.

Zolaberritzea Irurita eta Arizkun

Azpiroz y Saralegi eraikuntza enpresak eginen ditu Irurita eta Arizkongo karriken zolaberritze lanak. Balleko Udalak 2.734.894 pezetako aurrekontua onartu du.

Cordoba erreka karrakatzeari

Erratzuko Bozate auzoan Cordoba erreka zola karrakatzeari eskatu dio udalak «Confederación Hidrográfica del Norte» erakundeari. Zenbait materialen pilatzearen ondorioz, berezko bidea aldatu du erreka eta zenbait belagietako lurrak urratzen ditu.

San Martin Lanbide Eskolako

pilotalekua berrituko dute udaran. Nafarroako Gobernuaren eta Balleko Udalaren artean ordainduko dute konponketa.

Eskisaroi jatetxea
Jaime Urrutia, ☎ 948 580 013
ELIZONDO

La Asturiana
ostatu • jatetxea
Tfnoa: 948 58 04 63
Santiago 51, ELIZONDO

IPINGI ZATOZ ETA IKUSI
Santiago 88, ☎ 948 580939
ELIZONDO

UDABERRIKO ARROPAK
Trajeak, soinekoak, konjuntok,
kamisetak, bainujantziak...

Ezkontzetako oroigarriak
Saskitxoak, zeramika...

Baztanen... 24 orduko zerbitzua

Eta Iruritan...

ESTHER FUNERARIA
LOREDENA • GARDEN CENTER
Hilkutxak • Hilautoak • Eskelak •
Dokumentazioak
Beztitzak, etab...

IRACHE TANATORIOA
Iratxe Monastegia, 60
Tfnoa: 26 09 34

Aritzondo, Bergara auzoa • Tfnoa: 948580971 • **ARIZKUN**
Errepide Nagusia • Tfnoa: 948592200 • **NARBARTE**
Jaime Urrutia 39 • Tfnoa: 948580668 • **ELIZONDO**

BAZTAN

Almandozko Korpuseko bestak ekainaren 2tik 6ra

Leku-Eder elkartearen eginen den afari batekin hasiko dira

Asteazkena, ekainak 2:

9etan herri afaria Leku-Eder elkartearen.

Ortzeguna, ekainak 3:

8etan goiz-argi soinuak. 12etan Meza Nagusia, Balleko agintariak eta Elizondoko Abesbatzabertan izanen direlarik. Ondotik, hameketakoa pilotalekuan. 9etan herri afaria Eskerne akordeolariak alaiturik.

Ortzilerie, ekainak 4:

11tan mustxapelketa pilotalekuan. 5etan haurrendako besta: antzerkia eta berendua. 6etan plater tirekaeta. Afaria Leku-Eder elkartearen. Arratsaldean eta gauetan orkestra batekin dantzaldia.

Larunbata, ekainak 5:

Goizean karrika buelta. 2etan zikiro-jatea. Arratsaldean eta gauetan dantzaldia orkestra batekin.

Igandea, ekainak 6:


12etan Meza eta lehendabiziko jaunartzeak. 6etan herri kirol erakustaldia. Gauerdia arte orkestra batekin dantzaldia.

Lau milioi terdi zolaberritze lanetan

Azpiroz y Saralegi erakuntza enpresak 4.427.000 pezetatan eginen ditu Almandozko zolaberritze lanak.

Eskola moldatzea eskatu du Guraso Elkarrekin

Almandozko eskola moldatzea eskatu dio Guraso elkarteak Balleko Etxeari. Bertzeak bertze, teilatua eta kalefakzioa konpondu, pintura eta zurgin lanak egin behar dira lehenbailehen.



Igandean, besten azkeneko egunean lehen jaunartzea eginen dute herriko neska-mutikoek. Arratsaldean, herri kirol erakustaldia izanen da.

ZUGARRAMURDI - URDAZUBI

Bina zerrenda udal hauteskunderetan

